

URDAIBAI

10
urte

2024
zenb.º 40
.....

©MAGAZINE



URDAIBAI, 40 URTEKO ESPERIENTZIA

| ARTADIAREN BIDEETATIK

| ALKARRIZKETA, JESUS LLARENA,
GERNIKALDEKO PASTORAL BARRUTIKO ABADEA

| PORTUONDO, PORTU ZAHARRAREN AMETSA

| JOSE MARIA IPARRAGIRRE, IDEALISTA ETA
IBILTARIA

| BUSTURIA, *LE ROY* FORMULARI LEIALA

| MADARIA, BETI SASOIAN

K

**Pentsatu
zer etorkizun
nahi duzun.
Benetan.**



Ez da aurreztea aurreztegatik, Baskepensiones baizik.

Betidanik, liderrak izan gara
etorkizunerako aurrezki-planetan.
Pertsonalizatuta daude eta onura
fiskalak dituzte.

BASKEPENSIONES bgae

Kutxabank SA Bazkide sustatzailea. Kutxabank Gestion IKESK SAU Ondare Kudeatzailea.

Kutxabank, SA. Kale Nagusia, 30-32, 48009 Bilbo. IFZ: A95653077. Bizkaiko Merkataritza Erregistroan inskribatuta. 5226 Tomoa, 0 Liburua, BI-58729 Orria, 1 Folioa, 1. Inskripzioa.

AURRERA ETA ATZERA BEGIRATU

Geure buruan dabilten eta komunitate moduan eragiten deuskuen kontzeptuek agurtzen dogu 2024a, esparru sozioekonomiko eta kulturalen egunerokotasunean sortzen diran kontzeptuak: barrikuntza, belaunaldien arteko erreleboa, aukera-bardintasuna, genero-bardintasuna, belaunaldien arteko integrazioa, kulturen arteko eta arrazen arteko integrazioa, klima-aldaketa, deskarbonizazioa eta beste batzuk. Horreei erantzukizun soziala eta indibiduala gehitu behar deutsegu. Testuinguru horretan, Urdaibai Biosfera Erreserbaren 40. urteurrenagaz batera, ekonomia zirkularra aipatu behar da, garapen jasangarrirako helburuek koherentea dan gizarte-, ekonomia- eta ingurumen-eredu arduratsu lez. Bere funtsezko kontzeptuetako batzuk dira produktuen iraunkortasuna, diseinua eta manufaktura, balio-bizitza luzeagoagoko produktuak, konpongarrak, eguneragarriak eta berrerabilgarriak gogoan hartuta. Premisa horreek abiapuntu ona dira Busturialdea-Urdaibai geure etorkizunaren eta guztion ongiaren alde denbora eta ahaleginak inbertitzen ari garenontzat, diziplina askotako eta zeharkako eztabaida bizietan parte hartuz. Kontua da eskualdean proiektu eguneragarriak, birziklagarriak eta berrerabilgarriak doguzen, horreetan eragile publikoek zein pribatuek ilusino bera, denbora eta dirua inbertidu dogula. Horreek ez ahaztutea erantzukizun estrategikoa da, eta urte barrian sartzeko jarrera eraginkorra eta iraunkorra.

URTE BARRI ON, EGOKI ETA BAKETSUA!

AURKIBIDEA



- 04 ERREPORTAJEA. Urdaibai, 40 urteko esperientzia
- 11 DANONARTEAN.
- 18 VISIT URDAIBAI. Artadiaren bideetatik
- 20 ALKARRIZKETA. Jesus Llarena, Gernikaldeko Pastoral Barrutiko abadea
- 26 LEKUKO. Portuondo, portu zaharraren ametsa
- 28 KALERIK KALE. Jose Maria Iparragirre
- 33 KOLABORAZINOA. Javier Vizcaino, Kazetaria
- 34 ZIENTZIAN. Busturia, *Le Roy* formulari leiala
- 40 SALTSA PORRU. Madaria, beti sasoiaren
- 44 BERDEAN. Kakalardo adarduna (*Lucanus cervus*)
- 47 LABUR LABUR.



ARGITARATZAILE

NUEVA EUROPA S.L
Carlos Gangoi, 15, behea
Gernika-Lumo (Bizkaia)
nuevaeuropa@nuevaeuropa.eus
www.nuevaeuropa.eus

HARPIDETZA

Aldizkaria jaso nahi badozu, gugaz harremanetan jarri hemen:
urdaibaimagazine@nuevaeuropa.eus
tel.: 94 625 06 06
www.urdaibaimagazine.eus

URDAIBAI MAGAZINE NUEVA EUROPA S.M-REN LANTALDEAK BURUTU DAU

Urdaibai Magazinek ez dauz bere gain hartzen hirugarrenek emondako eritxiak edo egindako komentarioak.

LEGE GORDAILUA: BI-153-2015

Aldizkari honek **Bizkaiko Foru Aldundiaren** laguntza jaso dau.


PUBLIKAZIOA: 2024.12.23



Urdaibai

40 urteko esperientzia

Urdaibaiko Biosfera Erreserbak 40. urteurrena ospatu barri dau. 1984ko abenduaren 6an, UNESCOk Biosferaren Erreserba izendatu eban, Urdaibai izenagaz. Inguru horrek Busturialdearen zati handi bat (udalerrri guztiak, Ea izan ezik) eta Durangaldeko (Amorebieta-Etxano), Uribe Kostako (Arrieta) eta Lea Artibaiko (Munitibar) txoko txikiak hartzen dauz. Erreserbak, eskualdeak eta bertako herritarrek behar daben garapen ekonomiko eta sozialaren ereduaren inguruko eztabaidaren erdian ospatzen da urteurrena.



Urdaibaiko ezaugarri nagusienetako bat da, naturagune bat izatea eta antxinatik gizakia bere ekosistemen barruan dagoen espeziea izan dala. Eta, hain zuzen be, alkartze hau da Urdaibai eta Biosfera Erreserba guztien ikur: naturaren konserbazioaren eta giza bizitzaren arteko oreka eta harmonia, eta haren garapen ekonomiko eta sozial iraunkorra. Biosfera Erreserbak ekologikoki adierazgarriak diran edo balio apartekoa daukeen eremuetan ezartzen dira, lehorreko, kostaldeko eta itsasoko inguruneetan. Eremu horreetan, gizakia eta bere jarduerak konserbazinoagaz integratzea funtsezkoa da.

Urdaibai Euskadiko Biosfera Erreserba bakarra da, eta 22.000 hektareatan gordetzen dan dibersidade natural handiagaitik de apartekoa.

Hondartzak eta mendiak, itsaslabarrak, ibaiak eta lurpeko urak, herriak, ondare kulturala, historikoa, eta paradisu natural honetan alkarregaz bizi diran pertsonak. 1984an, espazio hau konserbatzeko, Eusko Jaurlaritzak proiektu bat aurkeztu eutsen UNESCOri (Hezkuntza, Zientzia eta Kulturarako Nazio Batuen Erakundea), Urdaibai MaB Programan sartzeko asmoz, baina, aurretik, mobilizazio garrantzitsuak egin ziran Gernika eta Mundaka arteko lehorketa- eta urbanizazio-proiektu baten aurrean lurraldea babesteko. Gainera, Urdaibai da erreserba bera arautzen dauen lege propioa daukon Biosfera Erreserba bakarra; Urdaibaiko biosfera-erreserba babestu eta antolatzeari buruzko 5/1989 Legea. Lege horrek eremu horretarako eta bertan garatzen dan edozein jardueratarako araubide juridiko berezia ezartzen dau.

70EKO HAMARKADA, LEHENENGO BIOSFERA ERRESERBAK

Komunidade zientifikoak, gizarte kontsumista suntsitzailerean aurrean, ohiturak aldatzeko beharra ikusi eban. Horrela, 70eko hamarkadan, UNESCOk Gizakia eta Biosferari buruzko Programa (MaB, ingelesezko siglak) jarri eban martxan. Perso-



Gernika-Lumoko merkatu plaza

nen eta ingurunearen arteko harremana hobetzeko oinarri zientifiko bat ezartzea helburu dauko gobernuarteko programa zientifiko honek.

Programa horren ondorioz, 1974an "Biosferaren Erreserba" kontzeptua sortu zan. Izendapen horrek munduko sare batean eremu geografiko mugatuak batu, osatu eta gehitu gura ebazan. Eremu geografiko horreek ingurumen- eta gizarte-ezaugarriak batzen ebezan. 1976. urtera arte ez zan programa praktikan jarri, eta lehen guneak orduan izentau ziran. Urdaibaik 1984an bere izendapena lortu ebanean, Espainiako estatuko 9.ena izan zan. 2024an, Espainiako estatuan 55 Biosferaren Erreserba dagoz, munduko lehen herrialdea da katalogatutako Biosferaren Erreserba kopuru handienari dagokionez. Zerrendara gehitu diran azkenak, 2024an, Irati (Nafarroa) eta Val d'Aran (Lleida) izan dira.

Biosfera Erreserba izentautako espazioak esperimendu txiki bat dira, eta, bertan, asmatu-huts emotea oinarri hartuta, zibilizazioaren garapena (ekonomikoa, ongizatea, erosotasuna...) gure kontrakoa izaten ez jarraitzeko eta naturagaz harmonian bizitzeko formula ideala aurkituko da.

NICOLÁS GARCÍA-BORREGUERO, Urdaibai Biosfera Erreserbaren Patronatuko Zuzendaria. Urdaibai Biosfera Erreserba Zerbitzua.

Ze bilakaera izan dau Busturialdea-Urdaibaik naturari eta ingurumenari dago kienez eta herritarrei dagokienez?

1984an Biosferaren Erreserba izentau ebanetik, Busturialdea-Urdaibaik bilakae-ra esanguratsua izan dau, bai naturari eta ingurumenari dagokienez, bai herritarren parte-hartzeari dagokienez.

Biosferaren Erreserbak ekosistema balioetsuak babestea ahalbidetu dau, esaterako Urdaibaiko hezeguneak, bertoko fauna eta florarentzat erabakigarriak. Arriskuan dagoen espezieak berreskuratzen lagundu daben kontserbazio-programak ezarri dira, esaterako arrano arrantzalea. Programa horreek dibersidade biologikoari eusten lagundu dabe. Degradatutako habitatak leheneratzeko proiektuak egin dira, eta horrek ingurumenaren kalitatea hobetzen lagundu dau. Horren barruan sartzen da *Cortaderia sellosana* espezie inbaditzailearen aurkako borroka.

Erreserbak ingurumen-hezkuntza sustatu dau, eta herritarrak sensibilizatu dauz baliabideen konserbazioaren eta erabi-

>>>

lera iraunkorraren garrantziaz, Ekoetxea Urdaidaiko jardueren bitartez; izan be, natura-ingurunearen babesari buruzko konzientzia handiagoa sustatu dau. Ekoturismoan oinarritutako turismo-eredu bat garatu da, ingurumena errespetatzen dauena eta bertoko kultura sustatzen dauena.

Biosfera Erreserba izendatzeak herritarrek lurraldearen kudeaketan parte hartzea bultzatu dau. Alkarrizketarako eta lankidetzarako espazioak sortu dira administrazioen, bertoko komunitadeen eta ingurumen-erakundeen artean.

Hainbat ekimen sustatu dira, esaterako U-BAI, Urdaibaiko garapen ekonomikorako plana, konserbazioa eta garapen ekonomikoa batuz. Plan hau funtsezko sektore barrizaleetan oinarritzen da: arrantza eta elikadura, egurraren eraldaketa, industria eta turismo jasangarria. Ekintzaitza bultzatuz, jakina, Urdaibai eskualde lehiakorra eta bizia izan daiten.

Herritarren pertzepzioa aldatu al da Biosferaren Erreserba izateari dagokionez?

Bai, aldaketa nabarmena izan da herritarren artean Biosferaren Erreserba izateari buruz. Hasiera batean, baliteke adierazpena etiketa edo aitopen soil gisa ikustea, baina denborak aurrera egin ahala, herritarrek sakonago ulertu eta baloratu dabe bere garrantzia. Biosferaren Erre-

serba baten parte izateak bertoko nor-tasuna indartu dau. Jendea harro dago bere aberastasun natural eta kulturalagaitik ezaguna dan leku batean bizitzeaz, eta horrek ingurunearekiko kidetasun eta erantzukizun sentimendua sustatu dau.

Biztanleria ikusle izatetik parte aktibo izatera igaro da lurraldearen kudeaketan eta konserbazioan. Horren barruan sartzen da proiektu komunitarioetan, ingurumen-hezkuntzako jardueretan eta praktika jasangarrien sustapenean parte hartzea. Hainbat eragileren arteko lankidetzareagotu da, esaterako administrazioen, erakunde eta bertoko komunitadeen artekoa, eta, horri esker, alkarrizketa zabalagoa eta eraikitzaileagoa izan da lurraldearen etorkizunari buruz.

Laburbilduz, Biosferaren Erreserba izatearen perzepzioa bere balioaren ulermen sakonagorantz eboluzionau dau, bai konserbazioari dagokionez, bai garapen iraunkorari dagokionez, eta horrek herritarren inplikazioa eta konpromiso handiagoa ekarri dau.

Biosferaren Erreserba batek naturaren konserbazioaren eta garapen ekonomiko eta sozial iraunkorraren arteko ore-

ka eta harmonia bilatzen dau. Urdaibain oreka hori mantentzen dala uste dozu?

Oreka badago eta beti egon behar dau. Aipatu dogun bezala, Biosferaren Erreserba bat egotea oreka horretan oinarritzen da, eta hori da bere izateko arrazoia; beraz, beti egon behar dogu lanean hori gerta daiten.

Lurralde bat benetan funtzionala dan biosfera-erreserba bihurtzeko lan egiteak, adostutako lurralde-proiektu batean parte hartzen dabenen ikuspegiak eta asmoak bateratzea dakar

CRISTINA HERRERO MOLINO, UNESCOren MaB Programako (Gizakia eta Biosfera) biosfera-erreserben koordinazinoan eskarmentu handiko geologoa

Ze testuingurutan sortu eban UNESCOren MaB programak "Biosferaren Erreserba" figura? Zergaitik ikusi zan premia hori?

UNESCOren MaB Programa (Gizakia eta Biosfera -Man and Biosphere) 1971n sortu zan, sektore zientifikoak proposatuta. Planetako leku askotan batutako datuek erakusten eban egoera kezagarria zala ingurumen-baldintzen narriadurari eta espezie bizien galerari dagokienez. Parke nazionalak eta beste gune babestu batzuk baegoazan giza inpaktuetatik habitat bereziak defendatzeko, baina zientzialariek uste eban ez zala nahikoa leku jakin batzuk konserbatzea, oso bereziak izan arren, epe luzerako baliabideen eskuragarritasuna bermatzeko.

MaB programa ekosistema guztiak eta giza jarduerak haiengan daukozen ondorioak hobeto ezagutzea beharrezkoa zalakoan uste osoa jarrita sortu zan, "gehiago ulertzeko hobeto jarduteko asmoagaz". Natura-baliabideak erabiltzeko jarduera komunak hobetzea proposatzen eban programa zientifiko lez sortu zan, ez



Foruko Urdaibai Dantza Taldea

bakarrik babestutako leku bereziak konserbatzeko.

1974an, MaB Programak bere printzipioak "Biosferaren Erreserba" lez identifikatutako lurralde zehatzetan aplikatzea proposatu eban. Ezagutza zientifikoek funtsezko zeregina bete behar eban, eta hauetan baliabide naturalen erabileraren praktikak hobetzeko aplikazinoan biztanleriak esku hartu behar eban. Lurraldeak barne hartuko leuke estatuko legeriak babestutako babes-figuraren bat, bereziki konserbazioari buruzkoa, baina babestutako eremutik harago hedatuko litzateke, bertan probauko litzatekez erabili ohi ziran baliabideen epe luzerako konserbazioagaz bateragarriak ziran garapen-ereduak. Gainera, biosferaren erreserbak esperimentatzeko, ezagutzak eskuratzeko eta ezagutza horreek zabaltzeko guneak izatea proposatzen zan. Errekerimendu horreek biosfera-erreserbetarako proposatutako hiru funtzioak zehazten ebezan: konserbazioa, garapena eta funtzino logistikoa (esperimentazioa, ikaskuntza eta hedapena).

70eko hamarkadatik gaur egunera arte, Biosferaren Erreserbaren kontzeptuak bilakaera izan dau edo aldatu egin da?

Biosfera-erreserbaren kontzeptua hasieratik egoan formaltasunez definituta. Aplikazino praktikoak eboluzionau dau eta hainbat gizarte-sektorek erabiltzen eban biosfera-erreserbaren ideia be eboluzionarazi dau.

Lehen urteetan, herrialdeek naturagune babestu asko proposatu ebezan biosfera-erreserba lez, haien balio nabarmenei nazioarteko aintzatespena gehitzeko, seguru antzean. Guneak be aurkeztu ziran, balio zientifikoazpimarratuz. Zenbait gizarte-sektorek uste eban edo uste dabe, "biosferaren erreserba" izenekoek konserbazino zorrotzeko guneak izan behar ebeela. Hasierako lurralde horreetako gitxik erantzuten eutsoen benetan funtzino hirukoitzari (konserbazioa, garapena eta funtzino logistikoa), iraunkortasunaren ikuspegitik.

Halanda be, biosfera-erreserbaren figura praktikan jartzean, persona eta sektore asko sartzen dira jokoan, eta bakoitzak bere talaiatik interpretatzen

dau figura horren edukia. Tokiko erabakitzaileak, teknikari kudeatzaileak, eragile ekonomiko eta sozialak, banako herritarrak, kanpoko erakundeak eta sektore zientifikoak, ikuspuntuak, ezagutzak eta etorkizuneko itxaropenak eskaintzen dabez. Lurralde bat benetan funtzionala dan biosfera-erreserba bihurtzeko lan egiteak adostutako lurralde-proiektu batean parte hartzen dabenen ikuspegiak eta asmoak bateratzea dakar.

Horretara iristeak eta urteetan zehar lan-programa bat mantentzeak alkarrekintza eta ikaskuntza bateratuen prozesu korapilatsu bat eskatzen dau, helburua biztanleriaren garapen-asmoak harmonizatzea eta ekosistemen osasuna mantentzea izanik. Prozesu sozial dinamiko hori arrakastaz hedatu zan planetako leku askotan (2024an 759 dira biosfera erreserbak), eta horrek guztiak figura horrek bere izaterantz jotzea ekarten dau: epe luzerako giza espeziearen iraunkortasuna (edo bideragarritasuna) bilatzeko alkarlarenako lan-tresna.

Biosfera-erreserbak ikasketa-gune, esperimentazino-gune... lez ulertzen dira. Ze ondorio edo irakaspen erakutsi edo argitara emon dabez biosfera-erreserbak?

Biosfera-erreserba bat ezartzeko, gizartea dinamizatzeke lan zorrotza eta jarraitua egin behar da. Sektore desbardinak bateratzen dauzen proiektura iristeko, lidergoa behar da, parte-hartzea sustatzeko lan teknikoak, ikuspegi desbardinak entzuteke jarrera, herritarrek ulertzeko moduko eta onargarria dan etorkizuneko ikuspegia sortzeko gaitasuna, aukurak integratzeko trebetasunak, laguntza posibleak identifikatzeko intuizino eta ekintza desbardinak eta horreetan inplikaturako eragileenak koordinatzeko gaitasun handia.

Trebetasun horreek ez dira inongo unibersidadetan ikasten, eta lurraldearen iraunkortasun handiagoko ibilbiderantz eboluzionatzeko beharrezko tresnak dira. Biosfera-erreserba eta honen sare bakoitzak, erreserben sustatzaileek euren lanbidea ikasteko eskola iraunkorak dira. Ibilbide horretan, kudeatzaileen funtzioak >>>



Solabe hondartza eta Kanalako antzinako ontziola

noa betetzen daben teknikariak funtsezko pieza dira, erabakitzaila politikoen aldaketan jarraitutasun-hariari eutsi daiketez-lako, legealdia aldatzen dan bakoitzean.

Biosfera-erreserben funtzionamendugaz batera azaleratzen dan irakaspena landa-ingurunearen eta hiri-ingurunearen arteko harremana da. Landako herriek lurraldea egoera funtzionalean mantentzen dabe: sarbideak, tokiko biztanleen beharrezko hornitzeko ekosistemen gaitasuna, herriak hornitzea... Ekarpen inmateriala da hau eta funtsezkoa da naturarekiko eguneroko alkarreraginarean egotearen eta naturarekiko dogun menpekotasuna hautematearen esperientzia. Esperientzia hori gaur egun prozesu naturaletatik hain urrun dagozen hirietako biztanleei helaraztea erronka handia da landa-biosferaren erreserben-tzat, eta hiri-ingurunearen beharra. Gainera, biosfera-erreserbek iraunkortasun orokorrari egin daiketezen ekarpenaren aintzatespenean eta errespetuan oinarritzen da.-

Biosfera-erreserbak ez dira soilik garrantzitsuak gaurko munduarentzat, askoz be garrantzitsuagoak dira biharko munduarentzat

ANTONIO POU, biologoa, geologoa, Madridgo Unibersidade Autonomoko ohorezko irakaslea eta Urdaibaiko Biosfera Erreserban aditua

Ze garrantzi izan dau Urdaibai biosfera-erreserba izendatzeak natura konserbatzeko?

Naturaren konserbazinoaren ikuspegitik, zalantza barik, UNESCOk Biosfera-Erreserba izentau ebanetik igaro diran berrogei urte hauek oso emonkorrak izan dira. Ez bakarrik lurralde baten konserbazinorako, baita gizarte osoa ingurumenaren inguruan konzientziarazinao katalizatzeke be, eta horrek Euskadi osoan ingurumen-ekintza asko egitea ekarri dau.

1984ko abenduaren 6ko adierazpen ha barik, pentsatzeko da gaur egun zubi bikain eta dotorea izango gendula Mundakari neguko itzala emoten, eta kotxean, alde batetik, Izaro irlaren ikuspegi bikainaz gozatzeko aukera izango gendula, eta bestetik, Muruetako industria-guneek, hamar solairuko etxe-blokez inguratuta. Haratago, Gernika-Lumoko guneko historiko-turistikotxia eta Juntetxea ikusiko litzatekez.

Baina, berrogei urte hauetan sortutakoari naturaren konserbazino dei al dakioke zorroztasunez? Eta zer esan gura dogu zehatz-mehatz "naturaren konserbazinoagaz"? Izan be, seguruenik, Urdaibaiko Biosfera Erreserban aplikatuta, termino horrek gauza desbardinak esan gurako dauz zientzia-ekologoentzat, landa-eremueta biztanleentzat, hiri-biztanleentzat edo turismo-biztanleentzat.

Oinarritzko beste gai bat da kulturalki Biosfera-Erreserbaren figura naturaren konserbazinoagaz lotu dala. Halanda be, figura horren funtsa desbardina da, bere azken asmoa baita lurralde osora zabal daite-

kezen garapen jasangarriko ereduak esperimentatzeko eremu pilotu izatea. Berrogei urte horreek, ahal izanez gero, gaur egungoaren oso bestelako paisaia sortu ahal izango eben. Paisaia horretan hurrengo belaunaldiek modu jasangarrian bizi, lan egin eta gozatu ahal izango eben.

Zer egiten dau aparteko Urdaibaiko Biosfera Erreserba?

Zalantza barik, Estatuko gainerako 54 Biosfera-Erreserbetan ez bezala, lege-esparru propioa emon eutsioela, urte horretako uztaileko 5/1989 Legeagaz, berau babestuz eta ordenatuz. Lege horri esker, eremua Bilbo handiaren beste he-dadura bat bihurtzea saihestu zan, eta hiri horretako biztanleek oraindik be euskal esentziaren nortasun-ezaugarri garrantzitsu batzuk mantentzen dauzen ingurune historiko-kultural batez gozatzeko aukera izatea ahalbidetu zan.

Bestalde, Eusko Legebiltzarrak botau eta onartutako lege ha, ondoz ondoko dekretuen bidez osatu eta aldatu zana, korse babesle bat eraikitzean oinarritu zan, eta gerorako itxi eban Urdaibaiko biztanleriaren ongizatea eta garapena sustatzea. 2009ko ekainaren 5eko Adierazpenak gizarte-jardunerako proposamen txiki bat egin eban, gaur egungo munduaren erritmoak eta beharrek berehala lausotu ebana, aurrerapen-grinak itsututa, zer gura dogun, posible dan eta ze prezioetan gura dogun hausnartzea eragozten dauena.

Bizi-ereduen eta naturaren babesle izan zan korse bera, neurri batean, kaiola trinkoa izan da, gizarte- eta natura-fluxuetara egokitzeke legeen geldotasuna dala eta. Gainera, zurruntasun horrek ez dau eragozten indar harrapariek, beren adierazpen askoetan, harrapatzeke errazak diran alderdiak aurkitzea, arretaz az-



Arrantzaleak Bermeoko portuan

tertzea eta horrekaz abantailaz jokatzea, Erreserbako biztanleriaren desabantailarako.

Ze zeregin dauke Biosfera Erreserbek Garapen Jasangarriko Helburuak lortzeko?

Galdera honi erantzun aurretik, kome-ni da gogoratzea Nazio Batuek ez dirala munduko gobernu bat, baizik eta GJHak bezalako gaiak adostasunez onartzeko foro bat. Ondorioz, herrialde bakoitzak bere murrizketak ezartzen dauz, eta minimoekaz funtzionatzen da; izan be, GJHetatik kanpo itxi dira beste ekintza-eremu batzuk, eta horrek barik ezin dira bete 2030erako aurreikusitako helburuak. Bizi garen munduan bizi gara eta gauzak izan daitekezen bezalakoak dira. Horrek esan gura dau 2030 Agenda asmo positiboaren adierazpena dala, baina errealdadeak asko mugatzen dauela. Halanda

be, ekinez ekin, zelan edo halan, eboluzionau egiten dogu, baina belaunaldietan zehar. Ez dago besterik.

Nazioarteko foroetan ez bezala, hauetan ideia abstraktu, hipotetiko eta interesaduekaz lan egiten dalako, Biosfera Erreserbetan, benetan bere esentziari erantzuten saiatzen danean, personekaz eta benetako egoerekaz lan egiten da. 2030 Agendaren helburuen eta tokian tokiko egoeraren arteko distantzia neur daiteke horrela. Biosfera Erreserba gehienak landa-lurraldeak dira nagusiki, eta landa-eremua gitxi eta txarto ordezkaturat dago egungo gizartean. Kilometro gitxi batzutarat badagoz be, bi munduek gero eta gitxiago dauke komunean, hiri-munduek bere errealdadeetik urrun dagoelako eta landa-munduekiko daukon erabateko menpekotasunagatik.

GJHak bezalako helburuak bultzatzen eta garatzen dabezenek zuzenean ezagutuko balebez eta landa-munduan aktiboki parte hartuko balebe, beste helburu batzuk proposako litzatekez. Baina garai honetan hiri-munduek erabakitzen dau gizarte osoaren izenean. Zoritxarrez, neurri handi batean, bere beharrezko ezagutzen ez dauzen mundua da.

Biosfera-Erreserbak ez dira soilik garrantzitsuak gaurko munduarentzat, askoz be garrantzitsuagoak dira biharko munduarentzat. Baina, horretarako, konserbazinoaren ideiatik aldendu behar dabe, eta gizateriaren biziraupenaren eta garapen iraunkorraren edo, hobeto esanda, bidegarriaren ideian zentratu behar dabe.

UM

Ezagutu Gauegiz Arteaga
pausoz pauso

GAUEGIZ ARTEAGA
PAUSOZ PAUSO

AROTZ
Egurraren ibilbide turistikoa
Ruta turística de la madera

"JANARIA EZ DA BOTATZEN"

Eta, hala ere, xahuketaren % 30 platerean uzten ditugun hondarretatik dator.

Ez utzi janaririk platerean, eta lagundu elikagaiak alferrik ez galtzen.

Xahuketa nola prebenitu eta nola murriztu jakiteko, informa zaitez hemen:

zerodespilfarro.eus



JANARIA
EZ
DA
BOTATZEN.



PUBLIERREPORTAJEA



ARRATZUKO

UDALA

LOIOLA ETA BELENDIZ LOTZEKO BIDEA HOBETZEKO OBRAK

Arratzuko Udalarako udal-errepideen irisgarritasunarekiko eta mantentze-lanekiko konpromisoa gobernu-estrategia bat da, eta ildo horretan hasi dira Loiolako erdigunea eta Belendiz auzoa lotzen dauzen bidea hobetzeko lanak. Arekak garbitu dira eta, ondoren, berrasfaltatzeko eta adabakiak jartzeko lanak egingo dira. Proiektu honek 84.000 euroko aurrekontua dauko, eta Bizkaiko Foru Aldundiaren 55.000 euroko dirulaguntza, hau da, inbersinoaren % 65a. Loiola eta Belendiz auzoak lotzen dauzen errepideak ia bi kilometroko luzera dauko eta herrian trafikoko gehien jasaten dauenetarikoa da. Jarduketa hau udal-errepideetan urteko mantentze-lanak egiteko udal-politikaren barruan sartzen da, eta, horretarako, "Arratzu 2024ko udal-sareko bide-azpiegiturak hobetzeko proiektua" azterlana egin da.



BUSTURIAKO

UDALA

ESPALOI BARRIAK SAN KRISTOBALLEN, HIRIGINTZAKO KOHERENTZIA ESTETIKO ETA GIZATIARRAGOA

Bizkaiko Foru Aldundiak San Kristobal auzotik igarotzen dan errepidearen segurtasuna hobetzeko obrak egin ondoren, Busturiako Udalak udal titulartasuneko espaloien zatia berritzeko asmoa dauko. Helburua da hainbat puntutan hondatuta dagoen zorua nibelatzea eta egokitzea, eta espaloiak zabaltzeko obran jarritako lauzak bateratzea. Modelo bardina aukeratu da herrian egingo diran barrikuntzetarako, herri osoan hirigintza-estetika koherentea eskaintzeko premisagaz. Gainera, San Kristobal auzoko zeharbideko espaloi zabaletan egoteko giro atsegina sustatzeko, espaloi horreetan humanizaututako gune txikiak sortzea aurreikusten dau udalak, bankuak eta loreontzietan landaredia konbinatuz. Obrak 2025. urtearen hasieran hastea espero da.

TOURDAIBAI

Urdaibaiko turismo jasangarrirako elkarteak



688 638 421
info@tourdaibai.com



ERRIGOITIKO

URIA TABERNA, AISIALDIRAKO GUNE BARRIA

Errigoitiko Udalaren estrategietako bat herriko dinamizazio sozial eta kulturala da. Ildo horretan, orain dala gitxi Uria Taberna herriko-tabernaren kudeaketa esleitu dau udalak. Helburua da aisialdirako eta gastronomia-topaketarako, gune bilakatzea, baita udal-ekitaldiak antolatzeko eta bisitariak eta turistak erakartzeko baliabidea bihurtzea be. Uria Taberna Uria auzoan dago, herriko erdigunean. Bertan dagoz udaletxea eta herriko zerbitzu nagusiak, esaterako mediku-konsultategia, ludoteka eta kultur-etxea. Gainera, Elexalde auzotik gertu dago, paisaia-edertasun handikoa eta ondare erlijioso eta historiko aberatsakoa. Lokalak egonaldi atsegin batez gozatzeko behar dan guztia dauko, terraza handi bat, kalidadezko zerbitzua eta eskaintza gastronomiko zabala, esaterako brotxetak, hanburgesak, ogi-tartekoak, entsaladak, errazinoak eta asteburuetan menua. Dana giro hurbil eta atseginean.



FORUKO

UDALA

HERRIKO HISTORIAN ZEHAR BIDAIA-TUZ

Foruko Udalak "Foruko Historia 12 Mugarritan" izeneko liburua argitaratu dau, dibulgaziozko lana, eta herritarrei aurkeztu ondoren, doan banatu dau herrian. 12 erreferentzia historikotan zehar, Foruko historiaren une garrantzitsuenak azaltzen dauz Rober Garay artistak ilustratutako liburuak. Kontakizunak zorrotasun historikoz islatzen dauz herriko iraganeko une garrantzitsuenen xehetasunak, historiaurretik hasi eta aro garaikideraino. Atxagakoa haitzuloan hasten da argitalpena, orain dala 100.000 urte baino gehiago Busturialdeko lehen giza okupazioaren aztarnak aurkitu ziran bertan. Erromatarren aurreko garaia eta erromatarren garaia buruzko xehetasunak be emoten dabez. Erdi Aroko Urdaibaiko dorretxea, burdinolak eta errotak, San Kristobal ermita-eleiza, harrobia, frantziskotarren komentua, 1937ko fusilamenduak eta 1986ko desanexinoa dira argitalpenak jasotzen dauzen beste mugarri nabarmenetako batzuk.



GAUTEGIZ ARTEAGAKO

UDALA

AUTOKONTSUMOA ETA ENERGIA AURREZTEA SUSTATZEKO PLAKA FOTOVOLTAIKOAK

Gautegiz Arteagako Udalak, eraginkortasun energetikoa, aurreztea eta ingurumena uztartzearen aldeko apustuan, udal frontoiko estalkian plaka fotovoltaikoak jartzeko proiektua garatzen dau. Helburua da herriko energia-kostua murriztea eta, aldi berean, baliabide propioekaz eta barriztagarriekaz energia bertan sortzea bultzatzea. Sistema barraren ezarpenak sortuko dauen energiak herriko zazpi puntu argindarrez hornituko dauz: udaletxea, herriko taberna, kultur etxea, medikuaren kontsulta, Montorre eskola, Montorre haur eskola eta frontoia. Instalazioak 550 Wp potentziako 90 modulu daukoz, eta urtean 52.236 kWh sortzeko gai izango da, eguzki-energia soilik erabiliz. Gainera, sarera konektatua egongo da, eta horrela, plaka fotovoltaikoen ekoizpena hornidura asetzeko nahikoa ez danean, sare elektrikitik energia hartu ahal izango da. Hasierako inbersinoa 48.067,06 eurokoa da, eta proiektuak 45.801,71 euroko dirulaguntza jaso dau.



GERNIKA-LUMOKO

UDALA

ANBULATORIORAKO SARRERA ERRAZTEKO ARRAPALA MEKANIKOAREN LEHEN ZATIA UDAN EGONGO DA PREST

Gernika-Lumoko Udalak esleitu dau anbulatoriorako sarrera errazteko arrapala mekanikoa jartzeko obra, herritarrentzako lehenetsuneko zerbitzua. Exekuzioa bi fasetan egingo da. Lehenengo fasea, Diego Lopez de Haro kaletik anbulatorioko ateraino dagoen malda handieneko tartea izango da, gitxi gorabehera % 11ako aldatsa, eta uda baino lehen amaituta egotea aurreikusten da. Bigarren fasea udazkenean osatuko da. Instalazioak, 1,1 milioi euroko inbersinoagaz, 60 metro inguruko distantzia gaudituko dau, eta bizi-kalitatea hobetuko dau, ez bakarrik Gernika-Lumoko bizilagunena, bereziki herriko goiko aldean bizi edo joan behar dabenean, baita osasun-zentroko erabiltzaile guztiena be, batez be mobikortasun- edo arnasketa-arazoak dauzkatenean eta osasun-zentrorra oinez sartzen diran edadekoena.



IBARRANGELUKO

UDALA

ENERGIA-KOMUNIDADEA ERREALIDADE BAT DA DAGOENEKO

Ibarangelu ingurumenagaz eta energia jasangarriagaz konprometitutako udalerria da, eta horren erakusgarri da herriko energia-komunidade bat sortu dala. Komunitadeari forma emoten deutson alkartea 29 bazkidek osatzen dabe, horreen artean Ibarangeluko Udala. Udalak ingurugiroa, jasangarritasuna eta lan komunitarioa lotzen dauzen proiektu honetan herritarren jarrera bikaina nabarmentzen dau. Alkartea, dagoeneko presidentea, idazkaria eta diruzaina dauko eta partaidetza handitzeko prest dago. Komunitade energetikoak autokontsumorako modu kolektibo bat dira eta bertan parte-hartzaileek sortzen daben energiak baliatzen dira. Horrela, auzotar talde honek instalazioek, esaterako eguzki-panelak, sortutako energia batera erabili ahal izango dau. Alkartea sortzeko aurrekontua 15.125€-koa izan da, eta zati batean Udalak Bizkaiko Foru Aldundiko Ingurumen Sailari eskatu eutson laguntza baten bidez ordaindu da (5.250 €).



KORTEZUBIKO

UDALA

JASANGARRITASUN ENERGETIKOAK KORTEZUBI ARGITZEN DAU

Kortezubiko Udalak, bere ingurumen-kudeaketan koherentea eta klima-aldaketarekiko sentikorra izanik, aurreztera eta eraginkortasunera bideratutako jasangarritasun energetikoko politika garatzen dau. 2022tik, energia arloan espezializatutako ingeniari baten zerbitzuak kontratatu eban herriak, bilakaera neurtzeko eta energia-eraginkortasunari dagokionez aurrera egiteko. Herriko udal instalazioen auditoretza energetikoak egin ondoren, Udal Ekintza Plan bat zehaztu zan EAeko Jasangarritasun Energetikoari buruzko 4/2019 Legean ezarritako helburuak lortzeko. Premisa horregaz, 2023an argiteria publikoa barritzeko proiektu bat gauzatu zan, 83 argi puntu barriz LED ekipoak jarri. Gaur egun, Enderika, Santa Ana, Barrutia eta Oma auzoen inguruko argiteria indartzeko proiektu bat garatzen ari da. Proiektu honetarako obrak 2025. urtearen hasieran hasiko dira. Proiektu horreek garatzeko, Udalak Bizkaiko Foru Aldundiaren dirulaguntzak dauko.



MENDATAKO

UDALA

HIRI ANTOLAMENDUKO PLAN OROKOR BARRIAREN LEHEN PAUSUAK

Mendatako Udalak, joan dan abenduaren 3an egindako osoko bilkuran, udalerriko Hiri Antolamenduko Plan Orokor barria idatziko dauen talde tekniko-juridikoa kontratatzea onartu dau. Aukeratutako proposamenak metodologia egokia eta hirigintzaren eta jasangarritasunaren ikuspegitik hartutako konpromisoa planteatzen dauz, gizartearen, ekonomiaren eta ingurumenaren ikuspegitik. HAPO barria izatea oso garrantzitsua da Mendata izan gura dauen udalerriredua definitzeko eta horretan aurrera egiteko. Horretarako, herritarren parte-hartze prozesua funtsezkoa da. Herritarren eta inplikaturako eragileen eretxia ezagutzeak lagunduko dau udalerraren errealidadera egokitzen dan diagnostiko bat egiten eta biztanleen beharriaz eta gogoei erantzuten. Herritarren eta talde teknikoaren arteko informazio-truke hori funtsezkoa da Plan barriak hirigintza integratzailea eta "jasangarria" proposa daian, kultura-, historia- eta natura-ondarearen babesa aurreikusi, nortasunean sakondu eta ondarea gorde daian.



MURUETAKO

UDALA

KLIMATIZAZINOA ETA SANEAMENDUA UDALBARRIN

Muruetako Udalak klimatizazioa eta saneamendua hobetzeko sistema bat jarri dau "Udalbarri" udal zerbitzuen eraikinean. Hobekuntzek osasun-konsultategiari (Muruetako, Forua eta, batzuetan, Busturiako bizilagunentzako zerbitzua) eta udal-tabernari (biak zerbitzu anitzeko eraikin berekoak) eragiten deutsee. Klimatizazio zerbitzuak udan osasun-profesionalen egonaldia, itxarongela eta ondoko taberna freskatzeko balioko dau. Bi espazioak, leiho handiekaz, terrazan instalita eta erdi lurperatuta, beroegiak dira udan. Klimatizazio-sistemari esker (aire girotua/berokuntza), bi guneak tenperatura onean erabili ahal izango dira, bai neguan, bai udan. Horrez gain, taberna eta udal-dendaren azpiko harriaren koipeak bereizteko makina txiki bat jarriko da, Udalbarriko eraikin osoaren saneamendua hobetzeko. Izan be, gune biak hobi bardinak dauke. Bi hobekuntza horretarako inbersinoa 20.978,98 eurokoa izan da.



102.6 FM

Bizkaitik Bizkai osora
informazioa zabaltzen dauan
euskarazko irrátia

www.bizkaiairrátia.eus



DIBULGAZINO- PANELAK

Proiektu bakoitzari egokituak, diseinu barriztaile eta erabilera errazakoak. Material gogor eta jasangarriak. Eta beti ilustrazio ta eduki zehatzakaz.



NUEVA
EUROPA

www.nuevaeuropa.eus
nuevaeuropa@nuevaeuropa.eus
94 625 06 06 | 634 243 762
Gernika-Lumo



JASANGARRITASUNAGAZ BAT!

Busturialdeko
mankomunitatea

busturialdekomankomunitatea@bizkaia.org | 94 625 68 84 / 94 625 47 22

ONTZI ARINAK ENVASES LIGEROS	ORGANIKOAK ORGANICOS	PAPERA, KARTOIA PAPEL, CARTÓN	BEIRA VIDRIO	ERREFUXA RESTOS	OLIO ERABILIA ACEITE USADO	BERREABILGARIAK REUTILIZABLES

**herriko
taberna
arratzu**

Loiola auzoa,
Arratzu

94 625 36 86
649 559 516

1000 kolourau
Taberna - Jatetxe

Plaza San Juan Ibarra, 5/a
48300 Gernika-Lumo
94 625 76 19 / 628 548 572

f @

1994-2024
30 años JUNTOS

CHARCUTERIA - URDAITEGIA
PEPI
"CHARCUTERIA SELECTA"
ESPECIALIDAD EN PRODUCTOS IBERICOS

Plaza del Mercado, P-7
Telf.: 608 001 428
charcuteriapepi@gmail.com
GERNIKA

SAN ISIDRO

Sociedad Coop. Agrícola Ganadera
Abeltzain eta Nekazal Kooperatiba Elkarte

Bekoibarra, 25pab. 8-14 Edificio Sollube
48300 Gernika-Lumo
Tel 94 625 03 20 / Fax 94 625 68 71
kooperatibasanisidrogernika@gmail.com
www.kooperatibasanisidrogernika.com

f @

EUSKAL SOUVENIRS
GERNIKA

EUSKAL SOUVENIRS

Andra Mari kalea, z/g
48300 Gernika-Lumo (Bizkaia)
94 625 19 30
www.euskalsouvenirs.com

f @
@euskalsouvenirs

L&K
TRANSPORTE,
LOGÍSTICA ALMACENAJE,
DISTRIBUCIÓN...

Txaporta industrialdea, 2-1
48300 Gernika-Lumo
(Bizkaia)

Tel: 94 625 63 85
Tel: 94 625 75 40
e-mail: lgk@lgk.es

**AUZOKOA
TABERNA**
Arcoiris de
sabores

Pablo Picasso Kalea, 9
Gernika-Lumo
Tel. 94 625 16 66

Arrien Optika

Urkieta k. 10
Tel./Fax: 946 25 63 63
Email: arrienoptika@yahoo.es



Arteen arteko bidexka, Santimamiñerako bidean Gauegiz Arteagatik

Artadiaren bideetatik

Urdaibaiko erakargarritasun handienetako bat bere dibersidadea da, natura- eta hiri-paisaien aniztasuna, zeharkatzeko oso erraza dan espazio txiki baten barruan.

Errepertorio zabal horrek ekosistema bakoitzeko funtsezko ildo nagusietako elementu komun batzuk daukoz, eta bereizgarrietako bat artadi kantauriarra da. Arteen baso nahasia da, gurbiza, gartzuak, ereinotzak eta beste espezie batzuen baso barnerakoia, haraneko mikroklima epe-lak lagunduta Urdaibaiko lur karstikoak kolonizatuz. Landare-estalki moduan eta askotariko faunaren babesleku gisa daukon garrantzi ekologikoaz gain, artadi kantauriarrak paisaia-nortasun oso be-

rezidun ingurunea sortzen dau Urdaibain, eta hori hurbiletik ezagutzea merezi dau. Baso mota horren "orban" desbardinak zeharkatzen dabezen bidezidor ederrak zeharkatuz ezagutzeko aukera dago, gehienak itsasadarraren eskumaldean eta neurri txikiagoan ezker aldean. Artadian, harri biziko bideetatik barrena joango gara, baso trinko eta nahaspilatuan zehar sigi-saga, eta soilune txikiak ikusiko doguz basartean. Bertan, arteen adaburuek bahetutako argi-izpiak goroldioz, iratzez, eta enbor zaharrez estalitako harrien dekoraduan islatzen dira.

Mendi-ibiliak egiteak inguru hauetan bestelako dimensino hartzen dau, misterioz eta denporaz kanpoko, nasaigarria. Esperientzia sentsorial atsegina da eta masa berdeak bere usain, indarra eta isiltasunagaz inguratzen gaitu.

Besteak beste, Atxarreko San Pedro, Ereñozarreko San Migel, Ogoño mendia eta lurmuturra, Akorda auzoa, Tremoia, Santimamiñe eta Armendua mendia dira itsasadarraren eskumaldeko artadiaren eremuetako batzuk.

Ezker aldean, Busturia, Murueta eta Forua arteko mendilerroa nabarmentzen da: Atxapunte, Malluku eta Foruko Haitza.

Artadian barneratzeko, garrantzitsua da bidezidor egokiena aukeratzea eta beti bidearen barruan mantentzea, ez baita erraza bidetik kanpo orientatzea. Hona hemen bidezidor interesgarri eta gomendagarrienetako batzuk:

Ereñozarreko San Migel. Ereñotik, talaia bikaina. Bertan, ermita bat eta IX. mendeko gaztelu baten hondakinak dagoz, artadiak inguratuta. Itsasadarraren gaineko

panoramikak ikusgarriak dira.

Atxarreko San Pedro, Laida edo Lagatik edota Kanala eta Gauegiz Arteagatik. Atxarretik, artadi osoaren ikuspegi onenetako batez goza daiteke eta itsasadarra ta itsasoaren panoramika ederrez be.

Tremoia – Iruskietak eta Armendua mendia, Gauegiz Arteagako Basetxeta edo Zelaietatik. Artadian barneratzen da bidexka atsegina. Kobaederra haitzuloa, bidean dagozen bitxikeria natural interesgarrietako bat da.

Jentilen ibilbidea eta artadiari buelta, Gauegiz Arteagatik, baso barru-barruan barneratzeko eta artadi zaharrez lasai gozatzeko ibilbideak dira, gaztainondo lirainak, argi urria bezain lehiatua bilatzen dabenak eta haitzen artean zizelkatutako ehun urteko haginak dagoz bertan.

Santimamiñe eta Oma, Gauegiz Arteaga eta Kortezubitik Ereñozar magaletik Giza-teriaren Ondare dan Santimamiñe kobaraino igotzen dan bidezidor polita. Handik, Omara eta Bolunzuloko errotara joan gaitezke, eta Omaerreka ibaiaren ibilguari

jarraitu, harkaitzak irentsita desagertzen dan punturaino. Ereku horretan guztian, luraren egoera karstika lagungarria da lurpeko uren sareetarako.

Atxapunte Axpe- Busturiatik. Bidezidor labur eta aldapatsua da, mendi honen gailurrera garamatzana. Silueta berezia dauko eta paduretako eta hareatzetako zelaiak menderatzen dauz.

Ibilbide hauetako batzuk jarraitu edo deskargau daitezke, webgunean. <https://turismogauegizarteaga.eus>

UM



Artadi kantauriarraren ikuspegi orokorra Busturian

Jesus Larena



Abade ordenau zan eguna. **Argazkia:** Bilboko Elizbarrutia

JESUS LLARENA
Gernikaldeko Pastoral Barrutiko
abadea eta Bilboko Elizbarrutiko
liturgia-ordezkarria

Noiz jaso eban Jesus Llarenak Jainkoaren deia?

Prozesu berezia izan zan. Ni familia kristau batean hazi nintzan, nire gurasoak nire irakasleak izan dira. Baina nire bizitzako une batean ni abadeekaz haserretu nintzan, adoleszentziaren arrazoi desbardinengaitik. Eta urrundu egin nintzan, ez hainbeste Jainkoarengandik, baina bai ospakizunetatik. Antropologia ikasketak egin ondoren, Perura joan

Antropologoa eta maisua prestakuntzaz, eta bokazi- noz abadea. Jesus Llarenak MAITETU berba maiuskulaz darama bokazinoan. Hori da bere bizi-motorra eta 2017az geroztik izate hori lantzen dau Gernikaldeko Pastoral Barrutian..

"Gizon zoriontsua naz nire bokazinoagaz"

nintzan urtebetez. Han adiskidetu nintzan abadeekaz. Galiziar errendetore bat ezagutu neban bertan, eta markau egin ninduan. 40 urte zeramatzan han, bizitza osoan, eta lagun- tzen aritzen zan, baina otoitz be egiten eban. Ha perspektiba bat emon jatan. Nire kristau bizitza birplanteatzen hasi nintzan. Perutik bueltau nintzanean, konfirmatzea erabaki neban. Konfirmazio prozesuan, nik neure buruari galdetzen deusat: eta Jainkoak, zer prestau dau niretzako?

Zelakoa izan zan prozesu hori?

33 urtegar seminarioan sartu nintzan. Eta diakono⁴ ordenau ondoren, gotzainak Madrilen liturgia ikastera animau ninduan.

Aste erdia Madrilen eta erdia Bilbon egiten neban, ikasten eta parrokian lanean. Ekainaren 28an abade ordenau eta hortik aurrera, beste 2 urtez egon nintzan Txorierriin. 2017an gotzainak, beste kide bategar batera, Karlos Olabarrigaz batera, Pastoral Barruti honetara Gernikaldera gu etortzea

rrietakoagaitik. Izan be, azkenean ez da Gernika-Lumon bakarrik abadea izatea. Herriak ni ondo eta maitatuta sentitzen nazen lekuak dira. Kortezubin, Arratzun, Errigoitin, Ibarrangelun... horreek dira nire zaintzapean dagozenak, eta oso maitatua sentitzen naz.

matza. Eusebiok Sukarrietatik Forura eramaten dau, tarte hori guztia, eta Aingeruk Elantxobe, Eako laurak, Nabarniz eta Ereño eramaten dauz. Hori guztia Pastoral Barruti bat da. Nire lankide Juanek eta biok Kalzada egoitzari emoten deusagu zerbitzua. Gutxienez astean hiru egunetan joaten gara, meza ospatzen dogu bertan eta geure presentzia behar danean bagoaz. Zapatuetan Torre Zurira joaten gara. Gaixoak badagoz eta bisita eskatzen ba-deuskue, haiei eta familiari entzuten deusagu.

Zelakoa da Gernikaldeko abade baten bizitza? Estresak be eragiten deusgu?

Goiz altzatzen naz eta otoitz personala egiten dot. Beste abade bategar bizi naz eta goizeko 8etan Josefinetan, mezarik ez dagoen egunetan, bietako batek hara joan behar ez badau, alkarregaz otoitz egiten dogu. Eta gero martxan hasten gara. Parrokiako edo ordezkarietzako gauzak prestatu behar dira, edo bilera bat, edo arratsaldeko hileta prestatu, edo katekesiko materialen erreparosoa egin. Bazkalostean, denbora eta gogoa dagoenean, paseatzera irteten naz. Egun batzuetan gauza gehiegi alkartzen jataz. Horren aurrean heltzen saiatzen naz. Estresa hor dago eta horrela da, horregaitik ateratzen naz ibiltzera eta saiatzen naz otoitz-bizitza bat izaten eta geldirik egoteko tarte batzuk izaten, hori be kontrolau ahal izateko.

>>>



Gernika-Lumoko Andra Mari Eleizan meza ospakizuna. **Argazkia:** Toribio Beares



Eguzkiloa

Kultura erlijiosa falta da. Alberto Santana historialariak defendatzen dauenez, eta bera ez da fededuna, eguzkiloa kustodiaren irudia da. Jainkoaren babesa

Zein da zure lanaren alderik gaxena?

Nire lanaren alderik gaxena ez iristea da. Jendeak ez deust eskatzen nik gauza horreek guztiak egin behar izatea. Gernikara heldu ginanean, parroki txiki batean esan eustazan lehenengo gauzetako bat hauxe izan zan: "Jesus, badakigu hau zure hirugarren meza dala, berandu bazatoz, ez etorri korrika, heldu". Nik neuk neure buruari jarritako exijentzia da. Meza batzuk jarraian izaten dodaz. Jainkoari eskerrak, badira Hitzaren ospakizunak eta badira kanpotik etorten jakuzen abadeak laguntza emotera. Nik ezin dodaz 7 meza egin domeka batean, ez dagoelako horreek egiteko denbora materialik. Normalean bi edo hiru egiten dodaz. Jendeak ulertzen dau, jendea ona da. Guztiz eskertuta nago.

Busturialdea eskualde erlijiosa al da?

Eskualde erlijiosa da, eta uste baino erlijio-praktika handiagoa dauko. 20 persona bakarrik joaten dira mezetara herri txiki

batean, baina 20 persona dira biztanleria-ren % 5a. Ezin dozu eskatu 400 laguneko herri batean 100 mezatara joatea, estatistikari dagokionez portzentualki harrigarria izango litzatekeelako. Gainera, oso leialak dira, huts egiten ez dauen jendea da. Nagusiak, bai, baina ez dabe hutsik egiten.

Gure nagusiak garrantzitsuak dira Eleizarako, ezta?

Arratzun, adibidez, Josefina daukagu, Santo Tomas parrokiari, instituzinoa da bertan. Eta Josefina bezala, altxor diran beste hainbeste emakume dagoz eskualdean, hori bai dala geure ondarea, zentzu gizatiarrean. Ibarrangelun Martiñe Endeiza egoan, 93 urtegeaz mezetan irakurtzen ebana, baina erori egin zan. Kortezubin dagoz Angelita, Maria Angeles... Gu aurrera ateratzeko dana emon daben nagusien emaitza gara. Askotan, nagusi fededun baten hileta dagoenean eta seme-alabek sinesten ez dabenean, bere

aita edo amaren izanaren erroseta-harria galtzen ari direla pentsatzen dot, bere fede-bizitzak infinituraino entregatzera eramaten ebalako.

Eta txikiak katekesira al doaz?

Oso gaxa da, neska-mutilek lehen ministroaren agenda daukeelako. Sekularizazioa bataioagaz hasten da eta orain bateatu bakoek umeak izaten dabez eta ez dabez bateatzen eta ez dabez katekesira eroaten, hori horrela da. Nik uste dot duela urte asko teologo handi batek esan eban bezala, espirituaren ikuspegitik komunitate txiki eta espiritualak egiteko joera dogu. Hori da jarraitu beharreko bidea. Gu garenokaz ospatuko dogu eta Kristoren aurpegi hori erakusten saiatuko gara. Baina gero beti dagoz udazkeneko perretxiko harrigarriak. Bataiatuta egon barik Jesus ezagutu gura dauela esaten deustun jendea dago.

Zelan bizi izan dozu Klaratarren eta Frantziskotarren amaiera Busturialdean?

Minez, zarratzen dan historia batengaitik eta faltan botatzen dabezen pertsonengaitik. Mina sentitzen dot, Gernikan egun osoan zabalik egoan eleiza bakarra zalako, eta handik 20 minutu pasatuz gero, jendea etenbarik ikusten zan eleizatik pasatzen. Beti egoan nonor han, agian mezetan inoiz ikusten ez zenuena, eta

Gurea bezalako gizarte batean ez dago epe luzerako konpromisorik



Jesus Llarena sare sozialetarako grabaketa egiten

han egoten ziran errezatzen. Niri mina emon deust euren irteerak. 400 urte baino gehiago egon diralako hemen. Denboraren seinaleak dira, eta irakurtzen saiatu behar dogu, baina kosta egiten da. Azkenean, apur bat babesbako be geratzen zara.

Youtube kanal propioa dozu, Instagram, twitter (equis)... Ebanjelioa eta teknologia barriak bateragarriak al dira?

Youtuber egin nintzan pandemiagaitik. Youtubeko nire lehen bideoak 2020ko Aste Santuaren ingurukoak izan ziran, hain arraroa, hain mingarria zan Aste Santu haren ingurukoak. Jende askok behar eban. Lehenengo, zuzeneko emankizunak izan ziran. Katekesirako, denbora batez ebanjelioari eta familia mezei buruzko esplikazioak emotenn nebazan. Orain, domekero bideo bat argitaratzen dot eukaristia azaltzeko, nire espezialidadea. Nik badakit ez nazela euskaltzain ur-

gazlea, baina euskaraz egiteko beharrean sinesten dot, eta bi hizkuntzetan egiten dot. Niretzat garrantzitsua da nortasuna errespetatzea. Nire bideoetan ez dot inoiz harpidetzarik eskatzen, ezta like-rik be, behar dauenari laguntzea interesatzen jat. Nire ustez, teknologia barriak ate bat izan daitekez, baina atea ikumenezkoagoa izan behar da. Teknologia barriek ez dabe zirikurik izan Valentziako Danagaz, baina hara joan diran gazteak ez dira ekisagaz edo bideoekaz joan, egotera joan dira. Kontakua da bihotza mugitzen deustuna.

2023ko txosten batek adierazten dau nerabeen % 60k baino gehiagok ez dabela Jainkoarengan sinisten; zeren ondorio izan daiteke?

Kultura asko galdu dalako be bada hori. Nik uste dot erlijino klaseak ez dirala katekesia Parrokian katekesia egiten dogu. Ni antropologoa naz eta gertakari erlijio-

>>>





Jesus Llarena Urdaibai Magazinegaz alkarrizketan.

Klaratarren eta Frantziskotarren amaiera Busturialdean minez bizi dot, zarratzen dan historiagaitik. Denboraren seinaleak dira, eta irakurtzen saiatu behar dogu

soa funtsezkoa da. Ezin dozu ulertu Ibarangeluko erretaula edo Ibarrangeluko sabaiko dekoratua, erlijinoaz ez badakizu. Kontzientzia hori falta jaku.

Kultura erlijiosoa behar al dogu?

Ikonografikoki esanahi asko galdu dira. Adibidez, hemen Telmo izeneko ume asko doguz, haietako batzuei San Telmo Andra Mari eleizan dagoela esatean zur eta lur eginda geratu ziran. Esan neutsen San Telmo abitu dominikoa jantzita agertzen dala, zuri-baltza, eta itsasontzi bat eskuan daramala. Santu bat itsasontzi bat eskuan daukola ikusten badozu, apustu egin ezazu San Telmo dala. Kultura hori guztia falta da. Gauza bera gertatzen da

eguzkiloreagaz, Alberto Santana historialariak defendatzen dauenez, eta bera ez da fededuna, eguzkilorea kustiadiaren² irudia da, Jainkoa dan babes hori. Harritzekoa da ikusten ez doguzen benetako altxorrek daukoguzela bertan eta 300 edo 400 kilometrorra dagozen beste batzuk ikustera goazela. Eguneroko ondarea alde batera ixten dogu. Ondare ez-material guztia funtsezkoa da niretzat.

Eta zer egin erabiltzen ez dan ondare erlijiosoagaz, horren kasu ermita batzuk?

Hori oso korapilatsua da, afektibidadeak dagozelako hor. Ermitak baselizaren inguruan dagoen jendearenak diralako. Ermita bakoitza mundu bat da. Ermiten ara-

zoa da haien ondare higiezina, denborak aurrera egin ahala, oso sinplifikatua geratu dala. Nik uste dot zaharbarritze bat egiten dozunean historiaren une bat jarri behar dozula. Imaginatu 400 urteko eleiza bat eta zaharbarritu egin gura dogula. Historiako ze momentutara heldu gura dogu? Hori egin ahal izateko dokumentazio zehatza dagoen unera iritsi behar dala uste dot. Ondareen zaharbarritze horretan profesionalei itxi behar jake hori egiten.

Gero eta gehiago entzuten da "kristau ez-praktikantea naz" esaldia. Posible al da?

Ni begetariano ez-praktikantea naz. Hor erantzun deusut. Zuk espiritualtasun bat izan daikezu, Kristogaz harreman bat izan daikezu, hori guztiz posible da. Baina praktikarik ez badago, zelan sakontzen dozu adiskidetasun hori? Adiskidetasun hori, lagunarteko adiskidetasuna da. Koadrilako adiskidetasuna danez, bakarrik geratzen bazara beragaz etxean Kristogaz baino gehiago zeure ispiluagaz zagoz. Nik ulertzen dot gaur egungo mundua oso gatxa dala, familia askorentzat domeka goizak ezinezkoak dirala.

Bokazino erlijioso eza be nabarmena da, ezta?

Betiko izateko bokazino eza da. Gurea bezalako gizarte batean ez dago epe luzerako konpromisorik. Adibidez, eta ez da kritika bat baieztapen bat baino, uste

dot elikagaien bankurako askoz errazagoa dala urtean bitan elikagaiak batzen dabenean jendea izatea, euren biltegietan elikagaiak ordenatzen laguntzeko boluntarioak izatea baino. Biltegiatzeak astean behin boluntario-lana egitea eskatzen dau. Zaharkitze programadu bat dago gizarte mailan, ez dago bizitza osorako irauten dauen ezer. Ez dot uste bokazino faltaren arazoa danik, baizik eta "bizitza osorako" horren arazoa be badala. Bokazino falta dagoela, erabat ados, begi bistakoa da. Baina Eleizatik haratago doan zerbait dala uste dot. Doako zerbitzua oso gitxi balorau egiten da.

Emakumeak be ikusten doguz meza emoten. Hori al da garaietara egokitzea?

Hitzaren ospakizunak dira, horreetan komunitadea batu egiten da, normalean emakumeak izaten dira laguntzen dabena, Jainkoaren hitza entzuten da, esker oneko otoitz bat egiten da eta komulgau egiten da. Ospakizun horreei teknikoki abade bako ospakizunak deitzen jake. Hori errealidadeei emoten jaken erantzuna da. Elizaren ministrotasuna bizitzeko modu bat da. Ministerioa³ ez dalako abadea bakarrik, ordenau bako beste ministerio batzuk be badagoz.

Beti egon gura izan dozun lekuan zagoz?

Ni gizon zoriontsua naz, nahiz eta beti pozik ez egon. Izatea eta egotea desbar-

dinak direlako. Ni gizon zoriontsua naz nire bokazinoagaz, zoriontsua nazenez, egon gura dodan lekuan nago. Beste kontu bat da pozik egotea, eguneroko gorabeherak gatzak izan daitekezelako. Gainera, nik dana kontrolpean euki behar dot, apur bat koadrikulatua nazelako, eta abadea izatea ezer kontrolatuta ez edukitzea da.

Zelan ulertzen da fedea 2024an?

Maitasun ekintza bat bezala ulertzen dot. Badakizu zein dan fedea mantentzeko sekretua? Maitau. Jendeak maite dozula sentitzen badau, jendeak badaki zein dan zure errealidadea. Baina maitatzea ez da berbaz bakarrik, ekintzak be badira. Uste dot San Frantziskok esaten ebala: ebanjelizatze orduan, ebanjelizau eta ozen berba egizu, eta behar izanez gero, ahoa zabaldu.

Zelan planteatzen dozu etorkizuna?

Ni gizon itxaropentsua naz. Kimu berde txikiak ikusten dodaz eta bidea batera egiteko jendea ikusten dot. Zelan gautatu? Eguneroko ahalegindu behar dogu. Zenbakiei dagokienez, nire bokazino ez da arrakasta izatea, fidelitasuna baizik. Nire bokazino fidelitasuna da, eta emon jatan doe horri leial izaten saiatzea. **UM**

¹**Diakonoa:** Eleizaren hierarkiaren hirugarren maila. Diakono batek bateatu, ezkontzak bedekatu, Hitzaren liturgia ospatu, predikau, ebanjelizau eta katekizau egin daike.

²**Kustodia:** Ostia, konsagrau ondoren, gordetze ko pieza. Kristok maiestatean bere burua erakusten dauen tronua da, eta aldi berean gizakiei erredentzio-elikagai gisa eskaintzen da.

³**Ministerioa:** fededun batek Jainkoaren dei berezi baten arabera egiten dauen zerbitzua, Eleizarako eta misioetarako



Gernika-Lumoko Klaratarrakaz

Portuondo

Portu Zaharraren ametsa

Sukarrieta eta Mundaka arteko kostalde malkartsuan kikilduta, Portuondoko senaia bere ertzetara iristean bakarrik ikusten da.



Portuondoko senaia

Ur geldiek, 1947tik trenbi-dearen euskarri dan harri-lubetak inguratuta, ispilu handi bat sortzen dabe, inguruko mendi-mazelak inguratzen dabezen artean adaburuak islatuz.

Senaia malenkoniaz betetako txoko horreetako bat da, bertan denbora geratu egiten da. Baina bere historia bitxian ze-

har beste erritmo eta bizipen batzuk izan ebazan, baita beste fisionomia bat be.

Trenbideko lanak senai bihurtu aurretik, Portuondo kala txiki bat zan, iparraldeko eta mendebaldeko haizeetatik babestutako babesleku bat. Atrakaleku ezin hobe zan, lasaia eta segurua. Errekek eta mareek mendeetan zehar hondoetan itxitako hareta eta limo geruzak sarkofagoak dira, eta beste garai eta kultura batzuetako aztarnak artatsu gordetzen dabez.

1986an Foruko erromatar herrixkako arkeologo-taldeak Urdaibai inguruan egindako prospekzio arkeologikoetan erromatarren garaiko zeramika-aztarnak aurkitu ziran Portuondoko senaian. Ondoren egin ziran indusketa-lanak Ana Martinez Salcedok eta Mikel Unzuetak zuzendu ebezan 1988ko urrian, eta zeramikazko materialen hondarrak aurkitu ziran, batzuk terra sigillata ziran eta beste batzuk zeramika arruntakoak, eta, besteak beste, gela-egitura baten hondak-

kinak aurkitu ziran, barrualdea bakarrik geratzen zala.

Horreek guztiak, zalantza barik, badia hau eta bere inguru hurbilena aro honetako lehen mendeetan erabili izanaren zantzuak dira. Erromatar merkataritzaren kokaleku, komertzio eta babesleku lez. Geroagoko beste egitura batzuek, erromatarren mailakoen inguruan eta Erdi Aroko gotorleku batekoak izan dai-

Portuondo kala txiki bat zan, iparraldeko eta mendebaldeko haizeetatik babestutako babesleku bat. Atrakaleku ezin hobe zan, lasaia eta segurua.

tekezenek, Portuondo nabigazinarako eta itsasadarren barruko sarrera kontrolatzeko leku estrategikotzat jotzearen

jarraitutasuna berresten dabe. Kai-mutur zahar baten hondarrak, itsasbeheran bakarrik ikusten diranak, antxinan inguru hau portu izaera eukala be berresten dabe.

Txatxarramendi isla inguratzen dauen itsasadarra Portuondotik zubiraino hedatzen da, eta erromatar txanponak eta zeramika berreskuratutako dabez bertan. Ondo babestutako gunea zanez, leku ezin hobe zan ontziak atrakatzeko eta merkantziak batetik bestera eramateko. Gaur egun, kala zahar ha, Portuondoren antzeko egoera bizi izan ebana, Sukarrietako La Marisma parkeak estaltzen dau. Parkea itsasoari ebagitako trenbidea pasatzeko egindako harrieta handiaren gainean dago.

Mendeetan zehar bizitza ekonomiko eta sozialari hain lotuta egon diran antxinako erabilera horreek tokiko toponimian islatu dira: ainguralekua eta bere ingurunea: Portuondo; Sukarrietako errekek eta haien inguruak: Portuerreka eta Porturas eta Portuetxe izeneko bi eraikin. Izen horreek guztiek faktore komun bati buruz berba egiten deuskue: portua, lurraldearen elementu nagusi eta erreferente lez, memorian bakarrik bizirik dagoena.

Antxinako kostaldeko aterpe honen nabigazioagaz, merkataritzagaz eta eguneroko bizitzagaz lotutako historia luze hau guztia Bizkaiko kultura-ondarearen zati garrantzitsua da, eta bere oroimena gordetzeko eta l.mendeetan Portuondo zelakoa izan eitekean jasota ixteko, 2006an erromatarren garaiko portu-jarduera interpretatzeko panel batzuk sortu eta instalau ziran. Panel orokorrean, Sukarrietako La Marisma parkean kokatutako totem batean, erromatarrek itsasoan jarraitutako ibilbidea, *via maris*, eta eskualdean erromatarrek izandako kokalekuak azaltzen dira. Portuondoko ontziralekuko bidean jarritako bigarren panel batek portuko giroa eta instalazioak birsortzen dauz. Hirugarrena Txatxarramendiko ontziralekuan dago eta itsas trafikoa buruzkoa da. Kabotajeko ontziek, beren sakonera zala eta, kostaldeko portuetan egon behar eben, eta merkantziak txalupa txikitik deskargau behar ebezan, kostaldera hurbilduz edo itsasadarrean gora garraiatuz. **UM**

Iturriak *El asentamiento romano de la Ensenada de Portuondo (Pedernales-Mundaka, Bizkaia)* Ana Martinez Salcedo, Mikel Unzueta Portilla.



Portuondoko ainguralekuko jardueraren gaineko interpretazio panela. Txatxarramendi irlako ontziralekua

JOSE MARIA IPARRAGIRRE

Bizitza idealista eta ibiltaria, bere
gitarra lagun

"Gernikako Arbola", Gernikako Arbola eta Euskal Foruen omenezko zortzi-koan egindako kanta, idatzi ebalako gogoratuko dogu beti Jose Maria Iparragirre. Bizitza bizi eta ezegonkorra izandako gizona izan zan, poeta eta musikaria, gizon idealista, politikatik harata-go bere lurra maite ebana, trobadore ibiltari berezia.



Urretxun (Gipuzkoa) jaio zan, 1920an, eta lehen urteak Idiazabalen emon ebazan. Han, gurasoek osabagaz, Gasteizera, bidali eben ikastera, eta, ondoren, Madrilera, 1833an. Halanda be, 14 urte bete barik, bere espiritu abenturazale eta ausartia erakutsi eban, eta etxetik alde egin eban karlisten artean izena emoteko, Gipuzkoako lehen batailoian. Bataila eta borroka artean, gitarra jotzen ikasi eban, eta berak sortzen ebazan hitzak eta musika. Arrigorriagako batailan zauritu eben (1835) eta ondoren D. Karlosen alabardarien konpainian sartu zan.

Gerra amaitu ondoren, 1839ko irailean, Bergarako Hitzarmena baztertu eban (lehen karlistaldiari amaiera emon eutson ituna) eta bere lehen erbestealdia hasi eban: Europako hainbat herrialdetan zehar bizitza bohemiarra. Italia, Alemania, Suitza eta Ingalaterratik ibili zan, eta Frantzian, bertan seme bat izan eban ezkontuta egon barik, atxilotu eta kanporatu egin eben 1848ko iraultza errepublikarrean parte hartzeagaitik, barrikadetan Marseillesa abestuz. Napoleon III.ak elementu subersiboa izateagaitik kanporatu eban. Erbesteko 12 urte izan ziran, eta beti gitarra-gaz batera musika emonaldiak egiten ebezan, 1851ean bueltatzeko indultua lortu eban arte.

GERNIKAKO ARBOLA

1853an, bere zortzikorik ospetsuenaren letra eta musika konposau ebezan (zortzikoa oso erritmo zehatzeko kanta edo musika-pieza da, 5/8 konpasean idazten da), *Gernikako Arbola* izenburuagaz. Juan José Altuna organistagaz batera, Madrilgo San Luis kafetegian interpretatu eban lehen aldiz, hirian bizi ziran euskaldun asko bertaratzen ziran eta. Abestia izugarri ezaguna egin zan, ereserki herrikoi bihurtu zan. Karlistek, liberalek, konserbadoreek, errepublikarrek, sozialistek, komunistek eta abertzaleek *"Gernikako Arbola"* abesten eben.



Gernika-Lumoko erdigunean dagoen Iparragirreren estatua

"Biografía del Gernikako Arbola" liburuan, Jose Mari Esparzak dino kantuak *"mamin politiko eta emantzipatzailez bete ebala Euskal Herriaren kontzeptua, kantari esker"*

Iparragirre ezagutu ebenek eta bere irudia aztertu dabenek "historiako lehen hippy"-tzat jotzen dabe, "euskal kixotea", "euskal bardoa"

zazpi euskal lurraldeek ikur bat bere egin ebeelako, Gernikako haritza". Esparzak liburuan dinoen bezala, «ez da *"Gernikako Arbola"*ren bertsoak bezain erreproduzitako euskarazko testurik egon, ezta hainbeste hizkuntzatara itzulita be, esperantoa barne. Operetan eta antzerkian be ez dago *euskal doinu bersionatu eta entzunagorik*». Iparragirrek herriagaz konektatzeko erraztasuna izan eban eta gaitasun handia eukan jendearen sentiberatasunera iristen ziran letrak eta musikak konposatzeko.

Gaur egun be bada, lurralde bakoitzeko ereserki ofizialei uko egin barik, Gernikako Arbola Euskal Herri osoko ereserki ofizial bihurtzea sustatzen dauen alkarte bat, Gernikako Arbola Kantuz Elkartea (GAKE).

ARRAKASTAK ERBESTERA ERAMAN EBAN

Kantuaren arrakasta eta sinbolismoa handia izan zan, eta garaiko agintariiek arrakatsutat jo eben. Horregaitik, Iparragirre 1955ean herrialdetik bota eben eta bigarren erbestealdia hasi eban, oraingoan Ameriketara. Buenos Airesera joan zan bizitzera, osaba batek hartuta, eta bertan tolosar gazte batez ezkonduta. Ondoren, familia osoa Uruguaira joan zan, eta han kafe-etxe bat zabaldu eban. Zarratu egin behar izan eban, eta abeltzain be aritu zan. Baina dana 1876an aldatu zan, Foruak abolidatu ziran.

Iparragirrek Euskal Herrira bueltatu gura izan eban Foruen alde borrokatzeko, eta horrela egin eban euskal koloniak Buenos Airesen egindako diru-batze bati esker, baina bakarrik bueltatu zan, bere familia osoa Uruguain geratu zan. Bordelen lehorreratu zan, eta han euskal koloniak hartu

>>>



Jose Maria Iparragirreraren gitarra Gernikako Batzar Etxean

eben, gero Euskadira etorteko. Bere nor-tasun ibiltariaren erakusgarri da enbata gogor batean itota hil ziran Gipuzkoa eta Bizkaiko hirurehun arrantzaile baino gehiagoren familien alde Madrilan egindako esku-hartzea (1878).

Iparragirre Amerikako erbestetik bueltatu zanean, bere abesti famatua ezin ebalabestu ikusi eban, berritua erbestera itzateko arriskuaren aurrean, baina Gernikako arbolaren arrakasta oso handia zan eta Iparragirre Euskal Herri osorako sinbolo bihurtu zan. Madrilan bizi ziran euskaldunek, Julián Gayarreraren parte-hartzeagaz (mundu mailako tenore liriko nafarra, bere garaiko onena, Erronkari 1844-Madrid 1890), omenaldi handi bat egin eutsuen Errege Antzokian, eta 60 urte ebazala Bizkaia, Gipuzkoa eta Arabako Aldundiek pentsino bat emon eutsuen. Itsason hil zan, lagunekaz afaltzen ari zala, 1881eko apirilaren 6an. 61 urte eukazan.

IPARRAGIRREAREN GITARRA ARGENTINARRA

Gaztetxo zala gitarra jotzen ikasi eban eta karlistadan persona ospetsu bihurtu eben abestietako batzuk konposatzen hasi zan. Bere lehen abestietako bat "Gitarra zartxo bat da" izan zan, bere emaztearen arabera bere gustukoena zan "zortzikoa". Iparragirrek beti izan eban gitarra bat lagun, baina bere gitarrarik ezagunena, Gernikako Juntetxean gordetzen dana, Buenos Airesen erosi eban, erbestean, Salvador Ramirez lutier malagarrari, Argentinan erbestera etorri eta gero, gitarra hori bere emazteari eman zion. Gitarra horren ezaugarri nagusiak hondo laua, diapasoi luzeagoa eta oso markatutako zortzi forma nabarmena ziran. Bere

itzura erromantikoagaz primeran konbinatzen eban gitarra. Iparragirre persona kultua zan, kantu klaseak jaso ebazan, opera ezagutzen eban eta bost hizkuntza menderatzen ebazan. Konposatzeko gaitasun handia eukan, bere emonaldietan komunikatzeko gaitasun handia agertzen eban eta erreperitorio zabala eukan.

Euskal Herriko herri askok Iparragirreraren memoria ohoratzen dabe kale bati bere izena jarritz, Bermeo eta Gernika-Lumokasu. Foru hiribilduak, gitarra Batzar Etxean gordetzeaz gain, omenaldia be egiten deutso gitarra falta ezin jakn eskultura bategaz.

Iparragirre ezagutu ebenek eta bere irudia aztertu dabenek "historiako lehen hippy"-tzat jotzen dabe, "euskal kixotea", "euskal bardoa", "gizon barreiatzailea, dirua, borondateak, ilusinoak eta baita bertuteak be esku beteetan barra-barra gastau ebazana", "noraezean, herratu, jarleku barik, etxerik eta orube barik bizi izan zan". Bere burua «arlote» gisa kalifikatzen eban, etxe, ogibide eta onura barik, eta Gontzal Mendibil kantautoreak idatzi ebanez, «bere esperientziak herri konzientziak jakintsu edo zorotzat hartzeko egoeran jartzen dau. Edo biak batera». (Iparragirre, Erro-Urratsak. Aurkezpena). **UM**

GERNIKAKO ARBOLA

1. Gernikako Arbola da bendikatua, eskualdunen artean guztiz maitatua. Eman ta zabal zazu munduan frutua adoratzen zaitugu, arbola santua.
2. Mila urte inguru da esaten dutela, Jainkoak jarri zuela Gernikako Arbola. Zaude, bada, zutikan orain da denbora, eroritzen bazera, arras galdu gera.
3. Ez zera eroriko, Arbola maltea, Baldin portatzen bada, Bizkaiko Juntea. Laurok hartuko degu zurekin partea pakean bizi dedin eskaldun jendea.
4. Betiko bizi dedin Jaunari eskatzeko jarri gaitezen danok laster belauniko. Eta bihotzetikan eskatu ezker, Arbola biziko da orain eta gero.
5. Arbola botatzea dutela pentsatu, Euskal Herri guztian danok badakigu. Ea, bada, jendea, denbora orain degu, erori gabetanik eduki behar degu.
6. Beti egongo zera udaberrikua, lore aintzinetako mantxa gabekua. Erruki zaitetz, bada, bihotz gurekua, denbora galdu gabe, emanik frutua.
7. Arbolak erantzun du kontuz bizitzeko, eta bihotzetikan Jaunari eskatzeko. Gerrarik nahi ez degu, pakea betiko, gure lege zuzenak hemen maitatzeko.
8. Erregutu diogun Jaungoiko jaunari pakea emateko orain eta beti, bai eta indarra ere zerorren lurrari, eta bendizioa Euskal Herriari.'



Visit Urdaibai
© bai Nueva Europa

bisita gidatuak



Kultura
Natura
Ondarea
Turismo Jasangarria



NUEVA
EUROPA

www.visiturdaibai.com
634 243 762 @visiturdaibai

kulturklik

ANTEKRIA, MUSEOAK, LIBURUAK, JAIALDIAK, KONZERTUAK, BERTSOLARITZA...
 TEATRO, MUSEOS, LIBROS, FESTIVALES, CONCIERTOS, BERTSOLARISMO...



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO



www.kulturklik.euskadi.eus

Gora hurbileko kazetaritza

JAVIER VIZCAÍNO, Grupo Noticias egunkariko kazetaria (Deia, Onda Vasca, Diario de Noticias de Navarra, Noticias de Gipuzkoa, Diario de Noticias de Álava)

Sekula ez dodaz ahazten ilunpetako lanbide honetan egin nebazan lehen pausuak. Ramiro Pinilla handiaren eta beste jende onaren itzalean emon nebazan, Getxoko Galea aldizkarian. Hilaro, hasieran, eta gero hamabostean behin, gertatzen ziran istorioak kalean jartzen genduzan, muga barik anitzan zan herri horren kaleetara eramanez. Hiruzpalau kilometro eskasetan, Erromo langile auzoko etxebizitza xumeak eta Neguriko jauregitxo dotoreak bata bestearen atzetik egoten ziran. Algotako Portu Zaharrako itsas zaporeari jarraituaz, kostaldearen lerroa galdu barik, Andra Mariaren landa-xarma agertzen zan, ordurako herrialdeko elite politiko eta enpresarialak bizi ziran goi-mailako txaletekez batera egoana.

Oinez edo oraindik Metro bihurtzeko urte batzuk beharko ebazan Eskuinaldeko tren hartan, barri-bila ibiltzen nintzan, bere garairik onenetan be negozio baten antzekoa izatea lortu ez eban kazetaritza-proiektu ha elikatzeko. Horrela, goizean udaleko osoko bilkura amaibakoetako bat jasaten neban, hirigintza-plan gaiztoen barri emoteko -beti kontra-, eta, handik apur batera, janondoko kafea auzoko alkarte bateko bozeramaileagaz batera hartzen neban. Alkarte horrek

droga-trafikatzaileek bertako gazteen bizitzak suntsitzearen aurreko inpunidadea salatu gura eban. Ondoren, alkarrizketa bat izan ahal neban bertan bizi ziran Eusko Jaurlaritzako sailburuetakoategaz, eliteko kirolariategaz -nahikotxo egoazan- edota ongi zuzenduriko eta ekonomikoki hobeto hornitutako Kultura Aretoak programatutako goi-mailako jardueran askotan parte hartzen eben distira handiko kanpoko artistarenategaz. Beste batzuetan eskarmentu handiko merkataria bat izan eitekean, institutuko irakasle bat, familia-mediku bat edo, zergaitik ez, kalean lo egin eta semafoetan paperezko zapiak salduz pezeta batzuk irabazten ebezan gazte bat. Bardin zan protagonistak nortzuk ziran. Istorio guztiak nahiko interesgarriak iruditzen jakuzan, gaur egungo 50 zentimo baino gitxiagotatik kiosko batean, kafetegi batean, janari-denda batean edo, antxinako eran, udal-barrutian zehar titularrek aldarri egiten eben saltzaileetako baten eskutik geure argitalpenaren ale bat eskuratzen ebenekaz alkarbanatzeko beharra sentitzeko.

Urte batzuk geroago, bizitzako karanbolek, zorreak eta, nik uste, nire erabakiek beste kazetaritza mota bat egitera eraman ninduezan. Baliabide eta

logistika askoz hobeekaz, euskal lehen ildo politikoko eta/edo Espainiako Estatuko informazioak landu dodaz. Era berean, publikoa eta nabarmena danez, mota guztietako gaiei buruzko eretxiak emotera be ausartu nintzan, baita (gorde iezadazue sekretua) ez dot beti neure burua gutxieneko ezagutzaz bermatua sentitzen horreetako batzuetaz eretxia emoteko.

Espero dot, gura dot eta behar dot denbora apur bat geratzea lanbide honen alanbrean oreka mantentzen jarraitzeko. Hala bada, ziur egon egingo dodala kontau deusuedana inoiz bistatik galdu barik. Ez nintzateke izango nazena (zerbait banaz) istorio liluragarrienei eskainitako urte zoragarri hareek barik. Istorio horreek ez dagoz ehunka edo milaka kilometrotara, berbertan dagoz. Urdaibai Magazine bezalako argitalpen batek, hamar urte bete dauzela, filosofia hau berbaz berba betez, lerro sorta hau idazteko eskatzeak pentsarazten deusta horrek guztiak (eta honek guztiak) merezi izan dauela. Eskerrik asko bihotz-bihotzez hurbileko kazetaritza egiteagaitik. ■



Medikuntza bere historia daukon zientzia bat da. Jarraian jasotzen dogunak zerikusi handia dauko geure eskualdeagaz eta Busturiagaz zuzenean lotutako abizen bategaz, Bulukua-tarrekaz. Garai hareko medikuntzako profesionalen lehen artisau-tratamendu medikoen eta, batzuetan, doktrina bitxien kontuekaz harrituta, zientzia beste modu batez ikusiko dogu.



turian zirujau aritu zana 1811n hil zan arte. Hiruretatik, Gaspar izan zan ospetsuena.

Medikuntzarako beste garai batzuk ziran, eta Busturialde bezalako landa-eremu batean medikuak eskasak ziran. 1813an, normala zan mediku edo zirujau latinoaren orde ziru jau erromanikoak (behe mailako lanbide-kategoria) izatea herri-tarren osasun-laguntzaren arduradunak. Mediku-falteagaz batera, medikuaren eta pazientearen arteko komunikazio-zailtasunak be egoazan. Gehienetan, garaiko medikuek ez eben euskaraz berba egiten, eta gurea bezalako eskualde %100 euskaldun batean, oso gatz egiten zan medikuaren eta pazientearen arteko ulermena. Mediku profesionalen eta gure eskualdeko baserritar edo arrantzaleen pentsaera eta bizitza ikusteko modu desbardinak be ez ziran lagungarriak. Horregaitik izan ziran hain funtsezkoak zirujau erromanikoak gure herrietan. Eurek euskaraz berba egiten eben eta inguruko bizilagunen pentsatzeko eta adierazteko moduak ulertzen ebezan.

Gaspar Bulucua Zuricalday zirujaua (Busturia 1789-1855) bere aitaren eta Juan

Bautista Apraiz zirujau bermeotarraren ikastuna izan zan. Baina Parisera egindako bidaia baten ondoren, hara ezagutzak zabaltzeko asmoz joan zan, Busturiara bueltau zan *Le Royren* medikuntza polemikoaren zale sutsu bihurtuta. 1813an bere konsulta zabaldu eban Busturian eta arrakasta handiz. Juan E. Delmas historialariak honela deskribatzen eban bere "Guia Histórico-descriptiva del viajero en el Señorío de Vizcaya en 1864" liburuan: "*Busturia zeharkatzen dauen Errege Bidea etxez beteta dago, batzuk itxura onekoak, oihal, gozoki eta jatekoen dendak be egoazan. Etxe horreetako gelak urtearen zati batean alokatzen jakezan gaixo askori, penintsulako tokirik urrunetatik Le Roy izenaz ezagutzen zan medikuntzaz baliazera Busturira etorten ziralako. Herriko zirujau titularra zan Gaspar de Bulucua, orain dala urte gitxi hil zanak, sendaketa harrigarriak egin ebezan*".

Bitxia bada be, gaixoez ez ezik, tokiko agintariek be babesten ebezan beren praktika sendagarriak. Horrela probau zan 1830ean, Martin Antonio de Zobaran Gernikako mediku titularrak intrusismoagaitik egindako salaketa baten ondoren. Busturiako Udalak eta Bizkaiko Foru Aldundiak babesa agertu eutsoen Bulucuari. Aldeko errazonamentua Bizkaiko mediku-faltan oinarritzen zan batez be, eta Gernikako medikua Busturiara gaixoak artatzera joatea gatxa zala. Baina ez zan hor geratu

>>>

BUSTURIA, *Le Roy* FORMULARI LEIALA

Medikuntzaren adar desbardinak egon dira beti, sendatzeko metodoen aldekoak eta aurkakoak. Polemika horrek geure eskualdeko osasun profesionalak be zipriztindu ebezan XIX. mendean, eta horreetako batzuk oso lotuta egoazan *Le Roy* sendatzeko medikuntza eztabaidatuagaz.

Louis Leroy, beti *Mr. Le Roy*, zirujau frantses bat izan zan, Pelgas, Nantesko zirujau zaharrak gomendatutako tratamenduak

jarraitu ebezan. Berak Pelgas-ek purgaz bere gaixoak sendatzen ebezan. Tratamendu horreei jarraituaz *Le Roy* osatu zan eta 1804an Pelgas hil ondoren, bere aita-ginarreba izatera iritsi zan zirujau haren lanak, esperientziak, metodoak eta sendagaiak argitaratzea gura izan eban.

Le Roy Parisera joan zan bizitzera, eta han sistema ha erabili eban, berea egin eban, eta erremedio sekretu lez bere botika erregistratu eban, panazea unibersala modukoa. Porrot garrantzitsu batzuen ondoren, 1823an Parisko Medikuntza Akademiak *Le Roy* sendatzeko medikuntzaren errezeta debekatzea aholkatu eban.

Kontua zan, praktikan, botikariez konposi-

zino ofizialak adierazten ebana baino osagaien dosi askoz be handiagoetan saltzen ebeela botika. Sortzen eban sintomatologiaren artean, gorakoak, antsiedadea, sabel gogortzea, zurbiltasuna eta beheranzkoa egoazan.

Ha ta guzti be, *Mr. Le Roy*-k ospea lortu eban. Bere liburuak argitaratu eta hizkuntza nagusietara itzuli ziran. Izugarritzko zabal-kundea izan eban, batez be Frantzian, Italian, Espainian eta Ingalaterran. 1829an, Espainiako osasun-agintariek Errege Agindu bat aldarrikatu eben, honako hau adieraziz: "*...guztiz debekatutzat jotzea Le Roy doktoarearen purga eta goragarri purgak prestatzea medikua edo kirurgian*

lizentziatua ez dan ororentzat...". Eztabaida beti joan zan *Le Roy*-gaz batera. Bere defendatzaileek esaten eben sendagai ha "ezjakinek eta sasimedikuek" gehiegi erabiltzea zala biktima askoren kausa, burubakotasunez emon ebeelako.

LEHEN MAILAKO ZIRUJAU ERROMANIKOAK

Medikuntza eztabaidatu hau geure eskualdera iritsi zan Gaspar Bulucua Zubizaray zirujau erromanikoaren¹ bitartez, zirujau busturiarren seme eta loba. Juan Bautista Bulucua Apraizegaz hasi zan leinu hau, Busturiako elizateko patroir erredidore izatera iritsi zana, baita bere semea be, Ignacio Martin Bulucua Bollegui, Bus-



guztia. Fernando VII .aren osasun agintariek Aldundiak Bulucuari emondako babesa aurpegiatu ondoren, hainbat herrik medikuntza zerbitzu mankomunadua eskaintzera animau ebezan. Gaia Bizkaiko Batzar Nagusietara iritsi zan, eta Bulucuari bere sendagaiaren erabileran trabarik ez egiteko eskatu eben.

Gasparrek *Le Roy* metodo eztabaidagarria erabili eban 1855ean hil zan arte. Bien birtartean, "Noticias sobre el ejercicio médico de la homeopatía en el País Vasco" [Euskal Herriko homeopatiaren ariketa medikoari buruzko albisteak] argitalpenean jasotzen zanez, Jose Mari Arostegui Bilboko zirujau ospetsuarengan lagun egin zan: "Arostegui jauna, aita, odol-ebakuazinoak egiteari itxi eta bete-betean sartu zan semeak zuzendutako tratamendu homeopatikoa. Dispepsia gogor batek jota, Busturiara joan zan, bertan Bulucua jaunak ospe handia eukan eta, *Le Roy*-ko medikuntzaren goragarri eta purgen tratamendua erabiliz. Busturian denbora apur bat emon ondoren, arrazoia edozein izanda be, Arostegi hau erabat osatu zan. Bilbora bueltau zanetik, *Le Roy* tratamenduaren jarraitzaile sutsua bihurtu zan, eta Busturiako bere irakasle-kidearen lagun handia egin zan". 1855ean Bulucua koleraz gaixotu zanean, Busturia astindu eban pandemia indartsuetako batean, aldi baterako zirujau lez ordezkatzera joan zan, eta, azkenean, Arostegui be gaixotu egin zan. "Bata eta bestea hil egin ziran, etenbarrik eta fede handiagaz bere erremediorik gogokoena hartuz".

JATORRI BAKARRA, OSABIDE BAKARRA

Le Roy Pelgas aitagarrebaren, kirurgia irakaslearen, gaixotasunei eta purgeen eraginari buruzko teorietan oinarritu zan. *Le Roy*-ren arabera, gaixotasun guztiak jatorri hurbil bakar edo bardinak sortzen dauz. Gure gorputzaren funtzino guztiak, bai egoera gaixoan, bai osasuntsuan, mobimentuen ondorioz gertatzen dira. Mobimentu horreen eragileak organoak baino ez dira. Normaletik aldentzen dan organo bakoitzaren ekintza-moduak organoaren funtzinoetan desordena sortuko dau berez eta berehala, eta desordena hori gaixotasunari dagokio.

Guztiaren soluzinoa gaixotasun guztietan Mr. *Le Roy*-ren purgak erabiltzea zan.

Medikuntza eztabaidatu hau geure eskualdera iritsi zan Gaspar Bulucua Zubicaray zirujau erromanikoaren bitartez



Gaspar de Bulucua erdian **Argazkia**: Busturiako Udal Artxiboa

Gaixotasun sendagarrietan purgau, errepikapen eta maiztasun desbardinakaz, gaixoa sendatu arte. Laburbilduz, *Le Roy* jaunak gaixotasun guztiak bakar batera murrizten dauz, hau da, osasunaren kontrakora, eta sendatzeko metodo guztiak erradikal bakar batera, purgea emon.

Purgea emotearen funtzionaltasuna ulertarazteko, honako konparazioa erabiltzen zan: giza gorputza ardo-upel bat egaz konparau. Upel horretan, egurra hondatzeko moduko hondarrak geratzen baziran eta usain txarra emoten ebanean, upelgileak upelian ura botatzen eban, behin baino gehiagotan mobidu eta hustu egiten eban zikinkeria barik geratu arte. Gauza bera gertatzen zan gaixoagaz eta purgeakaz, bere teorien arabera. Barrika bat erabiliezina geratzen bazan edo gaixo bat sendatzen ez bazan, haren barrenak, upelarenak bezalakoak, hondatuta edo ustelduta egoezalako zan, barruan materia ustelduak denbora luzez izateagaitik. Halan bere, purga guztiak ez ziran bardin erabiltzen, eta dosiak ez ziran bardinak. Adibidez, purga goragarriak ekintza-maila bakarra eukan, teagaz nahastuz arindu egiten zalako. Purgen lehen gradua zan onberena, eta urte bat arteko haurrentzat be gomendatzen zan.

Beraz, zientziak badauko bere historia, eta geure eskualdeak be badauko berea medikuntzaren historian, Busturia, Bulucua eta *Le Roy* direla izendatzaile komunak.

¹ Zirujau erromanikoak

Zirujau erromanikoak beste zirujau diplomatu baten ikasle edo "praktikante" gisa lan egin eta Protomedikatuaren aurrean azterketa bat gainditu ondoren titulua lortzen eben sanatazaileak ziran. Azterketa gaztelerazko erromantzez egiten zan, eta hortik dator zirujau latinoengandik bereizteko erabiltzen zan izena, azken hauek latinez egiten ebelako azterketa. XIX. mendearen amaieran, "zirujau erromanikoa" titulua erabiltzeari itxi jakon, eta "praktikante" izena hartu eben.

Iturriak: Gac. Med Bilbao.2024; 121(1): 39-47- Gondra-Rezola Juan ^{an}. Noticias sobre el ejercicio médico de la homeopatía en el País Vasco. Historia de la Medicina Argentina. Guía histórico-descriptiva del viajero en el Señorío de Vizcaya en 1864- Juan E. Delmas

UM

PURGEN ERREZETAK ETA KONPOSIZINOIA

(informazio gisa, ez probau etxean) ⚠

PURGA GORAGARRIA

- Kalidade oneko ardo zuria, lau libra.

- Palta pitusgarria sei ontza.

Jarri infusino hotzean, hiru egunez, eta astindu noizean behin, irazi eta ura atera, jarritako ardo kantidadea gera dadin.

Honela prestatutako libra ardo bakoitzari gehitu:

Potasioko antimonio tartratoa drakma bat (irazi).

PURGAK. LEHEN MAILA

- Alepo *scammonēa*, ontza eta erdi.

- Turbit-sustraiz egindako sei drakma.

- Jalapa, sei ontza.

- Dana hautsetan.

- 20ºko pattar, hamabi libra.

Nahastau eta jarri infusinoan, maria bainuan, 12 orduz 20º-ko tenperaturan, bahetu eta gehitu jarabeari honela:

- Palta pitusgarria sei ontza.

- Ur irakina: 24 ontzakoa.

Jarri infusinoan 5 orduz, ura atera eta gehitu hiru libra azukre beltzaran, egosi eta tinturari erantsita ez nahasteko moduko jarabea eginez.



Zorionak!

IZENETIK IZANERA GOGOAZUBI

Gabonetan be Sustabiz, geure kirolak sustatzen!

SUSTABIZ

Arabako Errioxa naiz

Eta nire etiketan
esanda dago dena.

Nire jatorriaz
hitz egiten duelako,
kalitate berdingabeaz,
esperientziatz, berrikuntzaz.

Saltoki eta
jaketxeetan arretaz
begiratu etiketari;
Arabako Errioxa
jarri behar du.



Soy Rioja Alavesa

Y mi etiqueta
lo dice todo.

Porque habla de mi origen,
de una calidad única,
de experiencia,
de innovación.

Fíjate en comercios
y restaurantes
que en la etiqueta
ponga Rioja Alavesa.



ELIKADURA, LANDA GARAPEN,
NEKAZARITZA ETA
ARRANTZA SAILA

DEPARTAMENTO DE ALIMENTACIÓN,
DESARROLLO RURAL,
AGRICULTURA Y PESCA

hazi

Kontsumo arduratsua.
Consumo responsable.



% 100 URA GARA

Bizkaia etorkizunera egokituta zainduz, inbertituz eta mantenduz.



Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa
Consortio de Aguas Bilbao Bizkaia

www.consorciodeauas.eus

Madaria,

beti sasoiari dagoen fruta gozoa

Freskagarria eta urtsua. Fruta hau bere forma bereizgarriagaitik da ezaguna, normalean biribildua edo malko itxurakoa. Bere nutrienteengaitik madaria oso aukera osasungarria da, urteko edozein sasoiari gozatzeko ezin hobea. Madari mota asko dagoz, bakoitza bere zapora eta egitura apartekoagaz, mokau gozoa modu naturalean jaterako orduan eta ezin hobea bere errezeta gozo zein gazietan erabiltzeko.



3.000 bariedade baino gehiago dagoz, baina batzuk baino ez dira merkaturatzen

Madari mota asko dagoz, eta limoi motakoa da horreetako bat. Milaka urteko fruta da eta latinezko "pirum" berbatik dator bere izena.

Madaria *Pyrus communis* izenez ezagutzen dan arbolatik dator. Errosazeoen familiakoa da eta jatorriz Europa ekial-

dekoa eta Asia mendebaldekoa da. Handik, greziarrek eta erromatarrek beste eskualde batzuetan sartu eben merkataritza-bideetatik, eta, ondorioz, gaur egun munduko leku askotan landatzen dan produktua da. Uste danez, madari-makatzak (*Pyrus pyraster*) izan ziran gaur egun landatutako bariedadeen aitzindariak. Erdi Aroan, monasterioek zeregin ga-

rrantzitsua izan eben madari bariedade barrien hedapenean eta aukeraketan. Monjeek madari bariedadeak lantzen eta hobetzen ebezan, eta, ondorioz, gaur egungo bariedade asko sortu ziran. XVII. mendean, madariak kolono europarren bidez iritsi ziran Ipar Amerikara. Aurrerago, hazkuntza- eta hedapen-teknika barriak garatu ziran, eta, horri esker, mundu

osoko madari bariedadeak dibersifikatu egin ziran. 3.000 bariedade baino gehiago dagoz, baina batzuk baino ez dira merkaturatzen.

NEGU ETA UDAKO MADARIAK

Madariaz urte osoan goza daiteke, hainbat arrazoiengaitik, munduko hainbat lekutan landatzen dalako eta neguko mada-

ERREZETA

Madariak ardotan

OSAGIAK (4 persona)

- 4 madari
- Litro-erdi bat ardo baltz
- 4 koilarakada azukre
- Kanela-adaxka bat

Madariak zurituz hasi, azala-kentzeko tresnagaz Aieta ikutu barrik itxi, politoago geratzeko aurkezpenean, eta azpitik ebaki, kazolan ondo finkatzeko. Madari sendoak erabili, egosi bitartean beren formari eusteko.

Jarri madari zurituak kazola handi batean. Gehitu kanela-adaxka, lau azukre koilarakada (madari bakoitzeko azukre koilarakada bat, adibidez) eta litro erdi ardo.

Dena su ertainean prestau, madariak ardoz estalita geratzen dirala ziurtatuz. Egosten jarri 25 minutuz edo madariak samur egon arte, baina ez deseginda.

Madariak egosita dagozenez, kendu kazolatik eta jarri plater batean.

Handitu sua eta itxi ardoari gitxitzen 5 bat minutuz, apur bat loditu eta saltsa koncentratua bihurtu arte. Epeltzen itxi.

Madariak ardotan bainilazko mantekado-bola bategaz edo zaporaak orekatzeko esne-gain irabiatuagaz lagun daitezke.



ria (udagoienearen hasieran heldua) eta udako madariak (garagarril eta abuztutik aurrera heltzen dira) dagozelako. Negukoan artean, bariedade ezagunenak Bosch, Comice, Anjou, Konferentzia madaria, Blanquilla madaria eta Ercolini madaria dira, eta udako bariedadeen artean blanquilla (Blanca de Aranjuez), Limoi edo William madaria. Negukoek hotzean gorde behar dira heltzen hasi aurretik, eta hori ez dabe udako bariedadeek eskatzen.

Merkatuan bariedade asko dagoz, bakoitza bere uzta-sasoiaz, baina kasu guztietan garrantzitsuena heltze-puntuan erostea da. Ez dira sagarren ondoan gorde behar, ezta ontzi hermetikoetan edo boltsen barruan be.

Bere zapore eta egitura urtsuagaitik, madaria dieta osasungarri eta orekatu baterako aukera ona da. Gainera, kaloria gutxi daukenez, aukera bikaina da pisua zaindu gura dabenez. Fruta oso nutritiboa da, bitamina, potasio, zuntz eta antioxidatza-

le asko daukoz. Madariak, fruta gehienak bezala, urez osatuta dagoz nagusiki; 100 gramotik 86g baino gehiago ura da, 10g karbohidrato eta gramo bat baino gutxiago landare-proteina. Koipe kopurua 0 da. Ur eta zuntz kantidadeagaitik asko asezten dauen fruta da.

Madariak sukaldaritzarako aukera asko eskaintzen dauz. Zapore gozoa eta leuna daukenez, ezin hobea da bakarrik gozatzeko edota errezeta desbardinetan sartzeko. Freskoa kontsumi daiteke, bakarrik edo entsaladetan, baita egosita edo labean eginda postreetan, tartetan eta konpotetan be. Errezeta gazietan, ondo konbinatzen dau errukula eta errefautxoekaz. Erdi-prijidu karamelizatzeke eta entsaladetan jartzea aukera ezin hobea da errezetak freskatzeko. Aukera zoragarria da madari-entsalada gazta urdinagaz eta intxaurrekaz, madariak be gazta-lagun ezin hobek diralako. Hilabete hotzetarako beste aukera on bat madariak ardo baltzean egitea da, modan dagoen postre klasiko gozoa.

Gabonetan fruta hau dastatzea aukera bikaina izan daiteke gehiegikeriak konpentsatzeko. **UM**



URDAIBAICO GERRARI ETA GERRA-GATAZKEI BURUZKO IBILBIDE GIDATU APARTA

Azken teknologiarekin. Ibilbideko sentsazio guztiez gozatzeko aukera ematen dizun APP-a.



ARKEOLOGIA BELIKOA Urdaibain Bakerako ikuspegia

Manu Leguineche (Arratzu 1941 – 2014), gerra-korrespontsal ospetsua, inspirazio-iturria da. Bere kronika eta gogoetek laguntzen dute, Arrolako kastroaren gotorlekuari buruzko istorioak, kortsarioen erasoak, Erdi Aroko gatazkak, karlistaldiak, Gernikako bonbardaketa, gerra zibila...

- Defentsa. Gotorleku baten bizitzea
- Bakerako inspirazioa
- Itsasoa. Aberastasun eta gatazka iturri

Informazioa: 634.243.762
visiturdaibai@nuevaeuropa.eus
www.visiturdaibai.com



Bizkaiko Foru Aldundiak babestutako proiektua.




Egur hil askoko baso heldua, kakalardo adardunaren babeslekua eta janaria. **Ilustrazioa:** Nuria González

Kakalardo adarduna, ikustea gero eta gaxagoa bada be, ohiko espeziea da geure inguruan. Koleopteroen ordenakoa eta lukanidoen familiakoa da (*Lucanus cervus*). Europako kakalardo handiena da, eta 9 cm inguru neur daike.

Kakalardo adarduna (*Lucanus cervus*)

Eguraren anima



Lucanus cervus, arra. **Ilustrazioa:** Nuria González

gainera, negu luzeetan babestuta dagoz bertan, 3-5 urte bitarteko epean. Denbora tarte luze horretan, enberraren/etxearen gorabeheren eraginpean jartzen dauz. Larba garaiaren ondoren, kapsula bat eraikitzen dau, pupa-sehaska, eta bertan metamorfosia gertatzen da. Heldu egiten danean, ekainetik irailera ateratzen da.

Bada gomutapen bat, nostalgiaz betea, Urdaibaiko herrietan bizi garenok seguru gordetzen doguna. Udako iluntzetan, gaua bero eta bare egoala, burrunba bitxi batek isiltasuna hausten eban, eta azken

Kakalardo ikusgarri honen bizi-zikloa gero eta eskasagoa dan baliabide natural honen menpe dago: egur hila

Arren matrailazur ikusgarriek, espeziearen sinboloa, 3 cm inguruko luzerakoak, pintza indartsuak dira. Ezkontza-borroketa erabiltzen dabez, borroka horreek deigarriak badira be ez dira oso hilgarriak.

Kakalardo adardunak hostozabalen eta baso helduen habitata behar dau. Baso horreek gitxi edo bapez esku hartutakoak izan behar dabe. Hauetan arbol zaharretako zuhaitz-masa da nagusi. Landare igokariak, oroldioak, likenak, iratzeak eta

onddoak garatu dira baso horreetan, eta haien inguruan zuhaixkak eta belarkiak dagoz. Baso horreen birsorkuntza-zikloaren barruan, hildako zuhaitzek eta deskonposizino-prozesuan dagozen enborrek lan biologiko apartekoa betetzen dabe. *Lucanus cervus* egurrezko hondar geldo horrexek behar dauz, eta deskonposatzen eta lurrera bueltatzen laguntzen dau.

Kakalardo ikusgarri honen bizi-zikloa gero eta eskasagoa dan baliabide natural honen menpe dago: egur hila. Emeak, matrailazur txikiagoekaz, degradutako enborren arrakalatan jartzen dauz arrautzak. Larbak egur horretaz elikatzen dira, eta,

argiaren kontra, soinu dardarati horren sortzailearen silueta bitxia islatzen zan. Kakalardo handi bat zan eta bere bi adarren antzeko matrailazurrek itxura beldurgarri eta burrukalaria emoten eutsoen. Txikitxoak beti liluratu dauz kakalardo honen itxurak.

Kakalardo helduak fruitu helduen zukuez edo arboleetako erretxinez elikatzen dira. Gehienez hilabete bat bizitzen dira heldutasunean.

Espezie hau ia Europa osoan dago eta gure inguruan hondino be badago, bere kopurua murriztu egin dan arren. Hau gertatzen da, neurri batean, basoetatik hildako egurra kendu egiten dalako, eta

beste arrazoi batzuegatik, esaterako argiak koleoptero horrengan eragiten dauen erakarpenagaitik. Izan be, askotan intensidade handiko argi artifizialaren biktima izaten da, eta bizirauteko eta ugaltzeko espazio egokietatik desbideratzen da. Kakalardo adarduna Espezie Mehatxatuen EAEko Katalogoan dago, "Interes bereziko" babes-kategorian.

Kakalardo adarduna Espezie Mehatxatuen EAEko Katalogoan dago, "Interes bereziko" babes-kategorian

Aurrekari hauek kontutan hartuta, egurretik sortutako kakalardo enblematiko horrek, basoko espiritu batek bezala, Urdaibaiko udako gau lasaieran hegan egiten jarraitzea espero dogu, horixe izango leike geure ingurune naturalaren osasun onaren bermerik onena. **UM**

Estatuko "Babes Bereziko Basa Espezieen Zerrendan" be badago.

Europa mailan, Habitategi buruzko Zuzentarauan agertzen da, II. eranskinean, "Egoki kontserbatzeko konserbazino bereziko eremu izendatzea behar dabezen Bata-sunaren intereseko espezieak. Bernako Hitzarmenaren (1979) III. eranskinean be babestuta dago, eta Europako Zerrenda Gorrian erregistratuta dago, "Kezka txikiko" kategorian.

Gaztelugatxeko donie-neko lankidetzaren kontseilua sortuko da

Kontseilu barria organo aholku-emoilea izango da, eta honako hauek osatuko dabe: Ingurune Naturala eta Nekazaritzako foru diputatua, Bermeoko eta Bakioko alkateak, Ingurumeneko foru departamentuko ordezkari batek eta Kultura arloko beste batek, eta Kostaseko Zuzendaritzako kide batek. Gaztelugatxeko kultura- eta ondare-balioak dirala eta sortutako Kontseiluaren eginkizunen artean honako hauek egongo dira: interesak eta jarduerak koordinatzeko irizpideak eta neurriak sustatzea, lankidetzaren sustatzea, jarduerak kontzertatu eta espazioan aurreikusitako ospakizunak ezagutzeko.

UM



Klima-aldaketarekiko hondartza erresilienteak

Helburu horregaz, Bizkaiko Foru Aldundiak proba pilotu bat jarri dau martxan, itsasaldiek neguan itsasertzerara ekartzen dabezen hondakinak kentzeko. Naturagune Babestuetan dagoen lau hareatzatan jarri da martxan: Laida eta Laga, Urdaibain; Arena, Muskizen, eta Astondoko duna-eremuan, Gortizen. Eskuz kenduko dabez substantzia antropikoak (plastikoak, obra-hondakinak, ehunak eta abar), eta hondarretan itxiiko dabez hondakin organikoak, esaterako adarrak, enborrak, algak... Hondartzetara itsasotik heltzen diran elementu naturalek hondarretan ekosistemak garatzen laguntzea da. **UM**

Kostaldeen jarduketaren aurkako kontzentrazioa lagana

Busturialdeko herritar askok bat egin eben Laga hondartzan Itsasertz Mugarteko (gobernu zentrala) jardueraren aurkako protestagaz. Obren bidez, hondartzako bi duna lotu gura dabez, "natura bizibarritzeko eta klima-aldaketaren aurrean kostaldearen egonkortasuna hobetzeko". Halanda be, Ibarrangeluko bizilagunek eta hondartzako erabiltzaileek salatu dabenez, jarduketa horrek hareatzaren paisaia eta sarbideak aldatuko dauz. Hondartza hau Bizkaian gehien bisitatzen danetako bat da. Udalak be salatu dau kostaseko arduradunek ez dabela horren barri emon.

UM




KANALA
BEACH

AUTORE SUKALDARITZA
ETA PRODUKTUARI
KULTUA URDAIBAICO
BIOSFERA ERRESERBAN

Erreserbak:
www.kanalabeach.eus
 +34 94 402 53 69



Etorkizun garbiago bat izateko ingurumeneko soluzioak





"Recisil" eta "Vacaciones adaptadas", enpresa-proiektu irabazleak

Guztira 14 enpresa-ideia aurkeztu dira Bermeoko eta Gernika-Lumoko Udaletako gazte-zerbitzuek, Bizkaiko Foru Aldundiak eta Busturialdeko Landa Garapenerako Alkartek (Urremendi) antolatutako lehiaketara. "RECISIL" ek eraman dau lehen saria, 3.000 eurokoa. 'RECISIL' silikonaren birziklapenean oinarritzen da, eta jasangarritasun industrialaren erreferente bihurtzea da bere helburua. 'Vacaciones adaptadas'-ek bigarren saria lortu dau, 2.000 eurokoa. 'Vacaciones adaptadas' Busturialdean desgaitasuna eta mendekotasuna daukeen personentzako bidaietara eta oporretara egokitutako baliabide eta zerbitzuen eskaerari erantzuteko sortu da. **UM**

Arrolagune Interpretazino Zentro lez finkatu da 2024an. Bisitariak gehieneko puntuazioagaz baloratzen dabe

Arrolagunek, Arrolako *Oppidumaren* Interpretazino Zentroak, 11 urte bete dauz Arratzuko Loiola auzoan kokatu zanetik. Denbora horretan sendotu egin da bisitarien balorazio bikai-

nari esker; izan be, Bizkaitik, Euskal Herritik eta munduko beste leku batzuetatik (Paraguai, Portugal, Kanariar Islak eta Madril) etorritakoak dira.

Arreta, giden azalpenak eta erakusketa gunearen zorrotasun historikoa dira bisitariak gehien baloratzen dabena. Gogobetetze-inkestetatik ondorioztatzen da hau. Persona batzuek aitortu egiten dabe sorpresa atsegina dala Arratzu bisitatzean Interpretazino Zentroa aurkitzea, eta gero eta gehiago dira sare sozialetan edo komunikabideetan iragarrita ikusi dabelako edo ahoz aho entzun dabelako, Arrolako aztarnategi arkeologikoaren historia eza-gutzeko asmoagaz hurbiltzen diranak. Arrolaguneren eskaintza bereziki aberastu da Euskadiko ikastetxe guztiei eskaintzen jaken eskola-programagaz. Programa horren esparruan, ikasleek, lehen zein bigarren hezkuntzakoek, lehenik Arrolako *oppidumaren* aztarnategia bisitatzen dabe txango batean. Txango horretan, gidariak alde historikoak azaltzen deutsez, giro lasai eta naturalean, eta ikasleek aire zabaleko historia klase batez gozatzen dabe. Bisita Arrolagunen amaitzen da eta ikastetxeetako arduradunek oso positibotzat jotzen dabe: *"aztarnategia bisitatu ondoren Arrolagunera egindako bisita nabarmentzen dogu. Errealidadea in situ ikusteko balio deusku eta oso baliotsua da ikasgelan ikasgaia lantzeko orduan"; "antolakuntza bikaina, oppiduma bisitatzea eta ondoren museoa. Gidariaren aparteko lana, hurbiltasuna eta geure kulturari emondako balioa azpimarratu gura doguz".*

Tokiko Ondarearen Interpretazino Zentroa daukon udalerrri bakarra gara.

Zelan baloratzen dozu zentroaren martxa?

Urtetik urtera gero eta jende gehiagok ezagutzen dau Arratzu eta geure interpretazino zentroa eta hori zeozergaitik da. Arratzura etortzeak gu ezagutu gura izatea suposatzen dau. Arrolagune zentro txikia da, herri txiki batean, baina egiten dogun kudeaketa erabat profesionala da, nahiz eta gure baliabideak apalak izan. Alde horretatik, Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Sailaren laguntza eskertu gura dot, *oppidumaren* garrantzia kontuan hartuta, Arrolako aztarnategia ikertzeko proiektuan lanean jarraitzen dauelako. Arrolagunen aurkitzen dozun kontakizun historikoak eta bertaraten diranei eskaintzen jaken arreta personalizatuak, zalelasuna pizten dabe. Arratzun daukaguna eta garana eskaintzen dogu. Gainera, Arrolagunek herriko, eskualdeko, Bizkaiko eta Euskadiko eskaintza soziokulturala aberasten laguntzen dau, eta herriko eskaintza gastronomikoagaz eta bertako produktuekaz sinergiak sortzen dauz be.

Zure ustez, garrantzitsua da Busturialdeko udal txikiak kulturagaz bat egitea eta tokiko ondareari balioa emotearen alde egitea?

Garrantzitsua izateaz gain, beharrezkoa da. Udal txikiok asko dogu egiteko eta erantzukizun handia dogu geure ondare kultural aberatsarekiko sensibilizazioan, ondare historiko zein naturalarekiko sensibilizazioan. Guk geuk ezagutu behar doguz ondoen, maitatzeko eta errespetatzeko; izan be, gure parte dira, geure esentzia dira, baita geure ondasuna be.

Lagundu al dau Arrolagunek Arratzu gehiago ezagutzen?

Argi dago Arrolagunek Arratzuren izena ezagutarazten lagundu dauela, interpretazino zentroa sustatzeko egindako lanakaz batera herriko sustapena datorelako. Arrolagunera hurbiltzen diranei herria gustatzen jaken normalean. Gehienek egonaldia luzatzen dabe herriko tabernan bazkaltzera edo zerbait hartzera geratuz edota herriko beste edozein txoko bisitatzeko. **UM**

Euskararen Etxea, Europako Kontseiluaren 2025 Museoa Sariaren irabazlea

Euskararen Nazioarteko Egunean, Euskararen Etxea Europako Kontseiluaren 2025eko Museoen Sariaren irabazle aukeratu eban Europako Kontseiluko Parlamentu Biltzarreko Kultura Batzordeak (APCE).

Antolatzailuek adierazi eben moduan, Euskararen Etxea hizkuntza bat zaintzeko erronka erakusten dauen museo txiki bat da.

Europako Kontseiluaren Museoen Saria urtero banatzen da, 1977az geroztik, eta Europako kultura-ondarea ulertzen, giza eskubideen eta demokraziaren errespetua sustatzen, kultura-zubiak sortzen, muga sozial eta politikoak gaintzen, bisitariak gizarte-arazo garaikideei buruz daukozen ezagutzak eta ulermena handitzen eta herritartasun demokratikoaren ideiak esploratzen nabarmen lagundu dauen museo bat saritzea da honen helburua. **UM**



GERNIKA-LUMO
Domingo Bernaola, 1
94 625 03 23 / 94 625 04 51



JARRI
ZURE IRAGARKIA
HEMEN

harremanetarako: 946 250 606

JOSU OLANO, Arratzuko Alkatea

Zerk suposatzen dau Arratzurako Arrolagune bezalako Interpretazino Zentro bat izatea?

Arrolagune udalak geure kultura eta historia balioetsi eta zabaltzeko egiten dauen apustu garbia da, guretzako funtsezkoak dira eta. Arratzun Arrolagune izatea, herri lez dogun nortasuna eta Bizkaiko historiaren zati garrantzitsua garela agerian ixten dauen gune bat izatea da. Eskualdean,





Izaeradun zerbitzu eta proiektuen garapena, zeharkakoak eta jasangarriak

www.nuevaeuropa.eu



A R R O

L A G U

N E

ARROLAKO
 OPPIDUM-AREN
 INTERPRETazio
 ZENTROA

INDIGENA BIZITZA URDAIBAIN

orain 2300 urte

BIZKAIKO MERKATARITZA



Idoia Ateka & Siara Río
DEKORAZIOA ETA BARNE-DISEINUA * GERNIKA

PROAKTIBOA, PROFESIONALA ETA OSO GERTUKOA